



“Bokadillo baten truke”

Antzerki amateurra Azpeitian

Pako Aristi

Bokadillo baten truke

-Antzerki amateurra Azpeitian-

Pako Aristi

AURKIBIDEA

1.- Antzerkiaren grina	5
2.- Tradizioaren aztarnak	9
3.- Andoni Albizuri, Oargi eta euskara	12
4.- Barre eginarazteko jaioa	18
5.- Antzerkia gustatu egiten	23
6.- Txikiterorik ospetsuena	28
7.- Jendeari ondo pasarazi nahi zion gizona	37
8.- Dekoratzaila aktore	44
9.- Antzerkiak harrapatuta erremediorik gabe	49
10.- Idazlearen deiadarra desertuan	56
11.- Antzerki amateurraren aberastasuna	64
12.- Malko gozoak	67
13.- Azpeitiko estreno mundialak	74
14.- Lehengo eta oraingo antzezleak Azpeitian	76

AURKEZPENA

XXII. edizioa ere hemen dugu eta azken urteetan bezala gure omenalditxo prestatu dugu. Jadanik urte asko igaro dira Azpeitiako Euskal Antzerki Topaketak hasi zirenetik, zeinek pentsatu, proiektua gauzatu eta gaur egun arte bizi-bizirik iraun dute eta benetan goraipatzekoa dela deritzot.

Esan bezala badaramatzagu urte batzu hainbat eta hainbat aktore omentzen baina normalean izen handiak hartu ditugu guztioi ezagun egin dakizkigun. Aurtengo honetan beste helburu bat buruan izaki Topaketak bere horretan hartu eta zein herritan egiten diren galdetu dugu, noski Azpeitia bere osotasunean hartzen badugu makina bat aktore izan ziren, gaurregun dihardute eta itxaropen handia dago etorkizunean izateko ere.

Guzti honengatik Azpeitiko aktore orohar eta bakoitza banaka omendu nahi dugu. Arrazoia jakitea oso erraza da: Gure herri honetan Topaketek pisu handia izan dute baina ez hori bakarrik bertan hainbat zaletuk taldea osatu eta maila bikaina erakutsi dute. Taldeen izenak gogoratu beharko bagenitu nor ez da gogoratzen Antxieta taldearekin? Urte askotan goza arazi bait digu. Ondoren Lakrikun taldea ere hor ibili da hainbat antzezlan taularatzen beraien grazia bereziarekin eta ezin ditugu ahaztu beste hainbat talde agian obra bakarra egin dutenak baina beren borondate osoa jarri dutenak.

Horregatik eta merezi dutelako gure topaketetan hainbat barre eta malko egin arazi diguten guzti horiei eskerrak eman nahi dizkiegu bihotzez. Antzerki mundua ez da erraxa eta gogo eta borondate asko erakutsi digute antzezle hauek. Kontatzen hasiko bagina hasierako ediziotik hona hainbat eta hainbat obra aurkitzen ditugu bertako aktoreek gure herrian estreinatu dituzten lanetan.

Egia da Topaketetan hasitako makina bat gaur telebistan edo beste lekutan dabiltzala beraien lanak egiten eta beste askok agian utzi egin diote baina edizio honetan ez dugu utzi nahi inor alde batetara eta guretzat ere pentsatzen dut nahiko zaila izango dela baina ahaleginduko gara. Saiatuko gara

ahalik eta Azpeitiko antzezleei buruzko informazio gehiena biltzen eta guztiei erakusten.

Liburu honetan batzuk bakarrik agertzen dira beren istorio eta anekdotak kontatzen zeren denekin harremanetan jartzea ezinezkoa litzateke edo hobe esan liburu potolo xamarra aterako litzaiguke. Bestalde izan ziren eta direnen izenak jartzen ere saiatu da idazlea eta norbait ahaztu bazaio aldezturik barkamena eskatu nahiko genuke.

Beraz guztiek edo gehienek aukera izan dezaten hona hemen liburuxka eta jakin hauetako askorekin herrian bertatik sortutako ideiatik lantxo bat prestatu dutela guztiok goza dezagun. Lan eta liburu honetan esan bezala gure herriko pertsonai asko agertuko zaizkigu eta ez naiz hasiko inoren izenak esaten irakurri eta ikusi gure herriak eman duen uzta ezagutzeko.

AITOR GORROTXATEGI LARRAÑAGA
KULTURA ZINEGOTZIA
AZPEITIKO UDALA

1- ANTZERKIAREN GRINA

Hona nola kontatzen duen Juanito Bikendik Antxieta taldearekin egiten zituzten entsaioen kronika:

‘Tailerretik 7/30etan etortzen nintzen etxera, hamar ordu lanean eginda, gero txirbila, zerrautsa eta egurra partitzen nuen etxeetan sutarako, karrokada hartuta ibiltzen nintzen, etxera etorri eta afaltzen ari nintzela telefonoak jotzen zuen. Imanol Elias builaka: Hire zain gatxaudek. Eta atzera hara joaten nintzen, entsaioia, eta handik hamabiak baino lehenago ez ginen ateratzen’.

Honela gogoratzen du Pilar Aizpitartek entsaioen dinamika hura:

‘Entsaioak, batez ere neguan, gogorak egiten ziren. Nik zazpiak arte lana egiten nuen, handik etxera, zeozer afaldu, telebisioa ikusi piska bat eta ohera. Entsaioia zegoenean oherako orduan jantzi eta irten egin behar izaten nuen, hotza pasa entsaioan, eta etxera etortzerako hamabiak izaten ziren. Eta hurrengo goizean lanerako jaiki behar. Baina hori hala zela pentsatuta joaten ginen’.

Imanol Eliasek ere aitortzen du entsaioen kontua oso sakrifikatua izaten zela: *‘Lehenengo paperak zabaldu, irakurri, gero bildu eta bakoitzak berea irakurri, pertsonajea nolakoa zen esplikatu, gero jaiki eta paperari begiratuta hitz egin, gero papera lagata apuntadorearekin, piskana-piskana joaten ginen. Media bezala lau hilabeteetan ikasten genuen obra, astean hiru entsaio egiten, eta estreinoa hurreratzen zenean Zelaitxo alkilatzen genuen han bertan entsaioitzeko, eta azken asteetan egunero igual joaten ginen, oso prozesu luzea da’.*

Kanpora joan behar zutenean antzeztera lana bikoiztu egiten zitzaien. Etxetik arratsaldeko 2/30etan atera traste guztiekin, kamioia

kargatu, egin behar zen herrian jaitsi, deskargatu, dena muntatu. Izerditu, ogitarteko bat jan askotan eta antzerkia egitera. Gero desmuntatu eta buelta etxera. Ordu asko. 100.000 pezetengatik Otxandioko puntaraino joaten ziren hainbeste lagun, goizetik joanda muntatzera.

Eta hortik aparte, larunbata goizetan taldeko batzuek autoetan sartu eta herriz herri ibiltzen ziren, bertako udaletxeetan obraren propaganda uzten, nolakoa zen esplikatzen, taldearen promozioa egiten. Imanolek gogoratzen duenez, *‘herri handietan al carajo bidaltzen gintuzten, baina txikietan ondo hartzen gintuzten, oso gustura hartzen zuten gure lana’*.

Eta hau dena zertarako, zergatik? Imanolek aitortzen duenez, *‘nere meta afaria lortzea izan zen urte askotan, kajatik ordainduta. Hasieran bokadilloa janda ibili ginen, baina gero lortu genuen obraren ondoren, edo hasi aurretik, eseri lasai jatetxean eta ondo afaltzea. Zer gutxiago!’*

Pilar Aizpitarteri galdetu diot ea ez al zen nekatu inoiz: *‘Ez, gustura ibiltzen nintzen, eta gero ja diru piska bat agertzen hasi zenean urtean behin afari eder bat egiten genuenean ya esta, nahikoa izaten zen hori neretzat. Gainera, ba al dakizu zer jende ibiltzen ginen? Juanito Bikendi, Pedro Otaegi, Txapa Txikiye, antzerkitik aparte entsaioetan, afarietan horiekin disfrutatu egiten nuen nik, iluntze ederrek pasatzen genituen’*.

Behin sari bat eman zioten Pilarri, 25.000 pezeta: *‘Neuk ez neukan dirurik, baina 25.000 pezeta horiek taldearentzako laga nituen, eta foko bat erosi zuten. Esaten zuen Joxe Aranburuk, orain foko horri zure izena jarriko diogu, Pilar. Zenbateraino gustatzen zitzaidan niri antzerkia!’*

Imanoli ere eman zioten sari bat, eta diruarekin taldekoei afaria ordaindu zien.

Azpeitiar asko ibili da urteotan antzerki amateurra egiten, alegia, soldatarik ematen ez duen hori. Alderantziz: zeure lanaz aparte lan izugarria ematen duena. Etxekoekin egoteko denbora ere jan egiten duena askotan. Asteburuak okupatu egiten dizkizuna sarritan. Zertarako? Zergatik? Imanolek hala dio: *'Barruan zeozer sentitu behar duzu, bestela zorakeria horiek ez dituzu egiten'*.

Antzerkiak Azpeitian izan duen historiatxo bat jasotzen saiatu gara, jende honen grina nolakoa den hobeto ulertu nahian, barruan zer sentitzen duten papereratu nahian. Askok izan zitezkeen liburu honetako protagonistak, baina aukeratu beharra genuen eta honako zazpi hauek elkarriketatu ditugu: Imanol Elias, Juanito Bikendi, Pilar Aizpitarte, Iñaki Bergara, Alaitz Olaizola, Iñigo Agirre eta Idoia Uranga. Liburuaren amaieran Jose Luis Otamendi herriko idazleak artikulua sakon eta mamitsu bat idatzi du.

Antzezle ezagunak asko eman ditu Azpeitiak: Kontxu Odriozola, Pedro Otaegi, Nagore Aranburu, Alberto Berzal eta beste hainbat. Antzerki obra bakanetan ibili diren antzezle anonimoagoak ere ugariak izan dira. Horien guztien omenez idatzia izan da liburu hau, euren lana errekonozituz eta lan horren sustraiak, arrazoiak esplikatu nahian.

Eta orain, besterik gabe, teloa jaso egingo dugu.



2- TRADIZIOAREN AZTARNAK

Imanol Elias antzerkigile, antzerki zuzendari eta idazlea izateaz at, historigilea ere badugu, Azpeitiko artxiboak ikertzen eta arakatzen amaierarik gabeko pazientziaduna.

Udaletxean ba omen dira Gerra Zibilaren aurreko datu batzuek, eta bertan laguntza eskatzen zuten antzerkia egiteko. Gehienbat Batzokian antolatzen ziren antzerki hauek, baina badakigu Loiolako baserri batzuetan ere prestatzen zutela zerbait. Entretenimendurako gauza gutxi (ez gaur adina, behintzat) zegoen garaiei buruz ari gara, eta dudarik ez antzerkiak hor funtzio garrantzitsua betetzen zuela; batetik entretenimendua eskaintzen zuen ikuskizun bezala, eta bestetik mezu bat zabaltzeko bide bezala. Mezu hau era askotakoa izan zitekeen: euskararen aldekoa, ideologia bat zabaltzeko, ebanjelioaren pasarteak jendearengana hurbiltzeko...

Gerra ondoren garrantzi handia izan zuten Luistarrek antolatzen zituzten antzerkiek. Gaur egun 'Telefonica' ren lokalak dauden tokian zeukaten Luistarrek antzoki txiki bat. Entsaioak bertan egiten zituzten; eta gero, eserlekuak ipini eta emanaldiak ere bertan eskaintzen zituzten. Obra haiek gazteleraz egiten ziren.

Juanito Bikendi dugu, gaur egun, Azpeitiko antzezleen artean beterranoena. 84 urte dauzka, eta ezagutu zuen Luistarren antzoki hura. *'Luisetan antzerkiak egiten nituen, bai, aita Laskibarrekin. Hots egin zidaten joateko, eta bai pozik joan ere. Obra asko egin genituen. Haien izenak?... Bata 'Morena Clara' deitzen zen. Han ibiltzen ziren Potxolo, Xagu Haundiye, aita Gaztelumendi, Zurutuza beterinarioa eta ahaztu ditudan beste asko'.*

Xelebrekeriak asko gertatzen ziren garai hartan. Utz diezaiogun Juanitori horietako batzuek kontatzen: *‘Aita Gaztelumendirekin genbiltzala, ‘El hijo carcelero de su padre’ obra egiten ari ginen. Han egoten ziren apaizak denak lehenengo ilaran jarrita. Obran, aita kartzelan sartzen zuten eta semea hura zaintzen. Joxe Mari Pirolek, gaueko eszenetan argia bajatzeko, barreño handi bat ekartzen zuen gatzarekin eta urarekin, eta elektrizisten kordoi hori, entxufean sartu, eta gero kordoi hori sartzen zuen barreño horretan eta berak nahi zuen neurrira bajatzen zuen argia. Bigarren atalean geundela, Xaguek abokatuarena egiten zuen, eta Joxe Lizarralde aitarena kartzelan. Xague gizon handia zen, sartu da eszenan karpetaekin, kartzelara joan behar zuelako deklarazioa hartzera, eta hasi zen ‘Kauen, txixagureak natxiok’, ‘Txixagureak natxiok’, nik esaten nion ‘Isilik egon hadi, motel’. Komuna beste puntan zegoen eta ezin zuen jende artean pasatu, eta esan nion, ‘Hara, potie hor non daukean, egintzak horreaxe isil-isilikan’. Hasi da gatzura zegoen barreñora pixa egiten, baina ordurako sartua zeukan kablea, eman dio kalanbrea eta Xague deiadarka, ‘Aiiii, Aiiii, kalanbrie! Kalanbrie!’. Hura katxondeoa, baina denek nere kulpa bota zuten, gauza guztiak bezala; beti nere kulpa botatzen zuten dena’.*

Juanitok ez dauka gogoan zenbat obra egin zituzten. Berak dio aita Gaztelumendirekin hilean bat egiten hasi zirela, *‘eta beti beteta egoten zen Luistarren lokala, Enparan kaleko neskazahar eta andra zahar guztiak etortzen ziren, Erdikalekoak ere bai’.* Eta gogoan du beste pasadizo eder bat: *‘Urdanetak ez zuen sekula antzerkirik ikusi. Eskatu diogu astoa, emango ez zigulakoan, eta eman. Bi asto behar genituen obran, eta bakarra lortu genuen. Zer egin? Irinarekin zuritzen genuen astoa, eta lehenengo eszenan zuria ateratzen zen. Hurrengo eszenarako astoak berak txupatzen zuen irina, eta guk*

kentzen genion geratzen zena, eta bigarren eszenan asto beltza ateratzen genuen. Horrela ematen zuen bi asto geneuzkala'. Amateurren trukoak.

Luistarren antzerki haiek ikusten bazen jende artean ume bat: Iñaki Bergara zuen izena, Iñaki Pio askorentzat, edo 'Kaxkurrio' aspaldi honetan. Dudarik ez obra xume haiek izango zutela eragina geroztik bizitza guztian antzerkia (eta beste gauza asko) egiteari inoiz utzi ez dion ume harengan.



3-ANDONI ALBIZURI, OARGI ETA EUSKARA

Imanol Eliasek gogoratzen duenez, 1957an edo sortu zen Oargi. Zer zen Oargi? Dantza taldea, gero antzerkiak egiten hasi zena, nolabaiteko talde kultural bat. Izen ofiziala honako hau zuen: 'Organización artística y recreativa de Gipuzkoa'. Frankismoaren garaiak ziren eta kultur talde normalenek ere holako deiturak izaten zituzten. Ramon Etxeberria eta Imanol Elias joan ziren Donostiara bilera batera hura sortzeko egin behar zirenak ikastera. 200 bat lagun egongo ziren hasieran. Bakoitzak hilean pezeta bat jartzen zuen sozio izateagatik.

Lan asko egiten zuen beste pertsona bat Andoni Albizuri zen, 'Katxo'. Iñaki Bergarak dioenez, *'Bera zen garai hartako alma mater, hark mugitzen zuen asuntoa, ni harekin hasi nintzen eta antzerki mordoska bat egin genituen. Adibidez 'Garó usaia', obra herrikoiak ziren, baserriko asuntoak, euskal giroko antzerkia. Azkena egin genuena 'Ustegabeko poza' izango zen.*

Imanolek ere ondo gogoan du garai hura: *'Egin genuen lehenengo antzerkia 'Damuba garaiz' izan zen. Maria Pilar Karterokue ere hor zen, jende bat bildu ginen, eta lehengo zaharrei helduta, Potxolo, Jaxinto Arregi eta hauek ere kateatu genituen. Hori obra txiki bat zen. Gero handiagoak egin genituen, 'Ramuntxo' esate baterako, kristoren obra zen hori. Norbaitek adaptazioa egina zuen, obra gogorra zen, eta zarauztar bat genuen ezaguna, edadetua, eta hura etorri zen gu zuzentzera. Neskak mutilekin nahasian egiten genuen obra, baina guri asko kostatzen zitzaigun neskei bizkarretik heltzea. Akordatzen naiz zarauztar horren deiadarrekin, 'Heldu motel lasai, horrek zer egin behar dik ba!'. Soldadu aurretik 'Gogo oiñazeak' egin nuen, Jose Luis Iriartek ere bai, artista ona zen, papera azkar*

ikasten zuen eta. Beste laguna Katxo nuen, beti ezkutuan ibiltzen zena, baina lan izugarri egiten zuena, dekoratuak prestatzen eta'.

Giroa zaila zen euskarazko antzerkiak egiteko. Obrak zentsurara bidali behar ziren, Madrilera. Lan haiek denak egiteko indarra zerk ematen zien galdetuta, hona Imanolen erantzuna: *'Garai hartan neretzat hizkuntza zen inportanteena, eta gero ba... ezagutzera ematea zeozter, jendea alaitzea gure antzerki haiekin, nik zer dakit ba. Neretzat garrantzitsuena euskara zen. Pentsa zein alde atera zen Azpeitin erderaz egiten ziren antzerki haietatik euskaraz egiten hastera, ikaragarria, hori la ostia izan zen. Nere lehengusua ibili zen, neska bera, eta hasi zenean 16 urte zeuzkan, eta etxean esan egin behar, gainera antzerkia mutilekin izango zelako. Esan omen zuen, antzerkia euskeraz zela, eta dena konponduta. Aitak 'bueno bueno, euskeraz baldin bada!', esan omen zion'.*

Gero Jesusen Pasioa antzeztu zuten hiruzpalau urtetan. Agustin Zubikaraik idatzi zuen 'Jesusen bideetan' obra, eta Jose Mari Altuna azpeitiar konposatzaileak musika jarri zion. Hori Zurutuza albaiterokak mugitu zuen, eta ehun lagunek hartu zuten parte. Aste Santutan egiten zuten, asteazkenean, Ostegun Santuan eta Ostiral Santuan. Donostiara ere eramane zuten obra urte batean, eta hamar minututako txalo zaparrada izan zuten saritzat donostiarren partetik.

Iñaki Bergarak gogoan du Pasioa, berak ere parte hartu baitzuen: *'Ni erromatarra nintzen, trajeak propio egin zituzten guretzat. Testu gutxi neukan, lau lagun ginen, kuadrilakoak laurok, Luis, Xabi eta... Sepultura aurrean egoten ginen, eta Pilatosen ondoan. Gero saltsa batzuek izan ziren eta bertan behera geratu zen'.* Imanolek dio: *'Azpeitiarrak halakoak dira, beti azpeitiarkeriak egiten, eta talde hura ere puskatu zen'.*

Juanito Bikendik ere egin zuen Pasioa. Judasen papera egiten zuen. Gertatu zitzaizkion bitxikeriak, beti bezala. Egunkariak saltzen zituen goizetan, eta antzerkian ikusi zutenek erosteari utzi zioten: *‘Neskazahar guztiek, ehundik gora, periodikoa erosteari utzi zioten. Nik periodikoak partitzen nituen goizeko bostetan jaikita, zazpi t’erdiak bitartean, etxez etxe, Enparan kalean, Erdi kalean, Eliz kalean eta Pelotalekuen. Jaietan gainera txistua joz saltzen nituen, periodikoak poltsan hartu, txistua beste eskuan eta diana eginez joaten nintzen neu bakar-bakarrik. Esaten zidaten Txokolok eta baino hobeto jotzen nuela. Nik Judasena egiten nuen, eta hark kristorenak esaten zizkion Kristori, ‘Hi Kristo baldin bahaiz, Jainkoaren semea baldin bahaiz, jaitsi gurutzetik eta salba gaitzak geu ere’.* Nartxixa neskazaharrak ikusi nau eta *‘Aizu, bihartik aurrera ez det periodikorik hartuko’,* eta askok laga zioten horrela periodikoa hartzeari, nik gaiztoarena egiten nuelako. Haiek benetan ari nintzela sinesten zuten, denak beldurrez airean edukitzen nituen. Nik esaten nien: *‘Baina papelak hola jartzen ez du ba?’*, baina ezin konbentzitu.

Pasioa egin zuen beste antzezle bat, gaur oso ezaguna zaiguna, Pilar Aizpitarte izan zen. 16 urteko neska gaztea zen orduan, eta huraxe izan zen bere lehenengo obra. *‘Zurutuza beterinarioak eraman ninduen. Maria de Magdalaren papera egiten nuen, Maria Magdalaren laguna. Niri txikitatik gustatzen zitzaidan antzerkia, baina eskolan bagenuen moja bat errekreo garaian antzerkiak preparatzen zituen, eta joaten nintzen eta ni bidali egiten ninduen atzera, ez nuela ondo egiten eta. Ni pasioan kantuan hasi nintzen, koruan, eta orduan beterinarioak esan zidan: ‘Zuk kantatu bakarrik ez, zuk paper txiki bat egin behar dezu’, eta ni pozak. Hiru hitz esaten nituen, baina paperak zuen gauzarik zailena zen negar egin behar nuela, emanaldi bakoitzean negar. Nola egiten nuen? Niri irten egi-*

ten zidan. Nik Jesus negarrez eta Maria Magdalena ere negarrez ikusten nituenean, niri irten egiten zidan berez, ez nuen begietan ezer botatzen. Eta hori Judasek, Juanito Bikendik barre eginarazten zigula beti, obratik aparte ere zorakeria asko egiten zituen. Gure amak bizitzan ez zuen antzerkirik ikusi, eta nola nik egin behar nuen Soreasura gure ahizpek eta eraman zuten. Negarrez ikusi ninduenean etxera etorri eta errietan egin zidan; 'Txorue, hainbeste jenderen aurrean hor negarrez, nola leike! '.

Izan ere, badirudi lehen jendeak sinestu egiten zuela antzerkian ikusitakoa, antzerkia zenik ere konturatu gabe. Abel Eizagirre, 'Txapa Txikia' ere entzunak dago ederrak. Obra baten eszenatik ateratzera-koan Juanito Bikendik zankadila jartzen zion beti, eta Txapa beti erortzekotan ibiltzen zen. Etxera joanda aitak esan zion: 'Tontue ematen dek, motel, ez al haiz konturatzen beti zankadila jartzen dikala leku berien?'





4- BARRE EGINARAZTEKO JAIOA



Historian eta urteetan aurrera jarraitu baino lehen geldialdi bat egin nahi dut. Bisita bat egin nahi diot Juanito Bikendiri bere etxera. Bera da zaharrena eta errespetua merezi du; antzerkilari peto-petoa izan da, pertsonaje bat da, gaur egun Azpeitian gutxi geratzen diren bezalakoa, eta gainera halako pertsonekin egotea oso ona da depresioarentzat. Berak ez daki zer den depresioa. Gainera bere biografia harrigarria da.

Ofizio guztiak probatu omen ditu, barrendero kenduta. Sei urterekin hasi zen antzerkia egiten, Misericordian, La Milagrosa egunean. Bakarrizketa bat egin zuen ume mukitsuak, 'Mi bigote' deitzen zena. Berari emango diot hitza, nik baino hobeto esplikatuko du eta.

'Ni orduan brusarekin ibiltzen nintzen, eta trajea egin zidaten antzerkia egiteko, ta gero komunioa ere traje horrekintxe egin nuen. Bibote bat pintatu zidaten, eta nik oilo ziriña ematen nuen, bizarra azkarrago irtetzeko ona zela eta holakoak esanez.

Txiki-txikitatik bazter guztietatik hots egiten zidaten, ez dakit zergatik, halakoxe xelebrea izango nintzen, esaten zuten 'Han, Enparan kale barreneko deabrue baziak', 'kapitana' eta holakoak deitzen zizkidaten, izan ere denei burla eta imintzioak egiten omen nizkien. Bihurria nintzen ikaragarria. Galo Barrena bizi nuen aldamenean, bestean Periko Matxile, eta bi horien artean bizitza zer nahi duzu ba. Gaiztoa nintzen oso'.

Hiru duroko isuna jarri zioten txikitan, Korputz eguneko prozesiorako gordeta zegoen oilo-luma zakua astindu eta erre kara botatzeagatik, Azpeiti guztian inork hiru duro ez zeuzkan garaian.

Antzezlarri zahar guztiek aipatzen duten Pasio famatuan ere parte hartu zuen, esan dugun bezala. *‘Han ehun lagunek hartzen zuten parte, baina dena puskatu zen gero, ez si eta ez no, egun batetik bestera, haserre ziztrinen bategatik. Gero berriro egin genuen Imanol Eliasekin eta, baina arropak eta denak kendu zizkiguten, Frantziskanatan egongo dira oraindik, gurutzeak ere berriak eginaz zizkiguten, sei gurutze’.*

Soldaduska Alicanten egin zuen, eta han ere antzerkia egiten jarraitu zuen. Horregatik 15 eguneko permisoa eman zioten. Juanitok dio gazteleraz antzerkia egiten ikasi duela, eta soldaduskan beste piska bat. Inoiz ez al den lotsatu galdetu nion, eta depresioa ezagutzen ez duen bezala, badirudi ‘lotsatu’ hitza ere ez duela ezagutzen. *‘Beti barre egiteko paperak eman izan dizkirate, baita Imanolek ere. Nik esaten nion beste paper bat nahiago nuela, eta berak ezetz. Behin egin nuen serioa, ‘Bi ahoko ezpata’ obran, eta Tolosan kristoren erridikuloa egin nuen. Banekien zer esan behar nuen, baina eszenarioan sartu eta dena ahaztu zitzaidan, ezin nuen neure onera etorri, ezin paperean sartu berriro, pentsatu nuen mareatu plantak egin eta hurrera erortzea, inprobisatzea, gainera Imanolen andreak sartu behar zuen eta hura nere zain zegoen... azkenean zeozer esan nuen. Gau hartan nahiago nuen Tolosatik oinez etortzea etxera autobuseko adar jotzeak entzutea baino’.*

Badirudi paper serioek zorte txarra eman diotela Juanitori. Entzun, bestela, Pasioan gertatu zitzaiona, Judasenak egiten zituenean: *‘Bukaeran urkatu egiten ninduten, eta nik preparatua neukan dena,*

bizikleta sillie ipurdi azpian jarri eta handik pasatzen nuen soka, eta gero goitik beste soka bat botatzen nuen gantxo batekin, tranpa eginda. Krispin, 'Soledad Potxolonekue', faktore zegoen trenean eta hark ipiniko zidala soka hori. Niri Mieltxok jartzen zidan beti, eta irten nuen konfiantza osoan, Mieltxorekin ohituta nengoen eta, baina Krispinek gaizki jarri zidan eta gantxotik kateatu ordeztatik kateatu ninduen, eta zintzilika egon nintzen, benetan alegia. Deiadar ederrak bota nituen, sokari heldu nion neuk ahal nuen bezala, eta gero Joxe Aranburu etorri zen eta hark jaso ninduen, hori dena jendearen aurrean... Larri ibili nintzen, egundoko estuasuna pasa nuen, urik edan ezinik egon nintzen egun batzuetan. Hurrengo egunetan adar jotzeak: ehun lagun ginela Pasioan eta karlista bakarra, eta ia bera urkatu zutela eta...'

Juanitok bere azken antzerkiak Antxieta taldearekin egin zituen. 1987an ebakuntza egin zioten, eta orduan utzi zuen antzerkia betirako. Imanol Eliasek hala dio Juanito Bikendiri buruz: '*Nik esaten diot Juanitori, piska bat beranduago jaiotakoa izan behar zuela, horrek berezko gauza harrigarri bat eduki izan du antzerkia egiteko*'.

Eta honela dio Juanito Bikendik Imanoli buruz: '*Antxieta puskatu zenean nik Imanoli segitu nion, beti segitu izan diot, taldea bi puska egin zen eta. Imanol oso erakustaile ona zen antzerkian*'. Juanitok aitortzen du beste erakustaile on bat: '*Ageda Perez Arregi izan dut beste bat ona, Madrilen eta antzerkian ibilitakoa behar zuen, pianoa jotzen zuen, kantatu, neska zaharra zen*'.

Inoiz ez al zen nekatzen galdetu nion, beti paperak ikasten, entsaiaitzen, hara eta hona, jende aurrera atera beharrean: '*Keba, inoiz ez. Donostian pasioa egin genuenean ere andrea eta hiru seme hartuta joan ginen. Pedro Otaegi, Txapa Txikia eta ni, hirurok nahikoa*

ginen jendea barrez jartzeko, beti bakarren batek mozkorrena egiten zuen, besteak zoroarena... haiek jendearen algarak! Ba al dakizu ze animo ematen duten? Niri ikaragarria, behintzat, benetan esango dizut. Ni lotsagabea izan naiz beti, jende aurrera beldurrez azaltzen bazara galduta zaude. Pilar ere horretan oso braboa izan da, batere nerbiorik ez inoiz, eta hori txarra izan liteke. Ni geldirik egon ezinekoa izan naiz beti, nik bi antzerki egiten nituen, bat jende aurrean eta bestea afaritan, inprobisatutakoa. Hori ez zen ikasi beharrik egoten, horrek berez irteten zuen '.

Umore ona eduki du Juanito Bikendik, grazi berezi bat, eta umore hori banatzen jakin du, bere aberastasunik handiena jendearen artean banatu nahi izan balu bezala. Halako pertsona aberatsik ez dago munduan, daukan gauzarik ederrena debalde banatzen duenik. Bere zaldia ere ez zuen etxera eraman nahi izan eta Charlie Chaplin pubean utzi zuen. Hor bada egurrezko barandila bat. Gau batean eman dio bentolerak Juanitori eta barandilla horren gainera igota hasi da bakeroarenak egiten, indioenak, geziak tiratzen, tiroak botatzen, orain okertu, orain zuzendu, egundoko demostrazio hipikoa. Gaur egun barandilla hori Juanito Bikendiren zaldia da.



5- ANTZERKIA GUSTATU EGITEN



Pilar Aizpitartek 72 urte ditu, eta Azpeitiko antzerkiaren panoraman beste aurpegi eza-gun bat da berea. Eta ez Azpeitian bakarrik: Goenkalen hiru urtez aritu da paper sekundarioa egiten, eta bere aurpegiak antzokietatik gure telebista pantailetarako saltoa eman du. Antxieta desegin zenetik ez du antzerkirik egin, baina ez du gogorik galdu. Proiektu batekin dabilta gaur egun Zaharren Egoitzan, honako hau: *‘Jubilatueta talde bat sortu*

nahi dute. Hiru emakume preparatu gara, gizonezkoekin dabilta gaizki, bilatu ezinda. Zurutuzak berak eskribitutako obra eman digu. Hiru emakumek bakar-bakarrik egiten dugu, geure kotileoa, eta beste obra hiru gizonezkoek egingo dute, sortzen badira. Oso obra polita da, emakumeok behintzat egingo dugu. Hor daukat papera ikasteko testua etxera ekarrita, oporretara ere horrekintxe joan nintzen’.

Antxieta taldearen urteak gogotsu gogoratzen ditu, baita bere apustua zein izan zen: *‘Azkenean iskanbila izan zen, eta nik besteekin jarraitu nuen, maioriarekin, ez ezer izan nuelako Imanolekin, nik pena handia hartu nuen, baina harekin geldituta bi edo hiru lagunek ez geneukan ezer egiterik. Bestaldean, berriz, koadrila handia zegoen, eta nik antzerkiari jarraitu nion, antzerkia egiteko grina neukan eta, ez baten edo bestearen alde nengoelako’.*

Pilarri antzezleri onenaren saria eman zioten Azpeitiko II. Antzerki Topaketetan, 1984an. Emakume ausarta, beti aurrera egiten dutene-

takoa, ez du beldurrik ezagutu taulara ateratzeko orduan. *‘Ni estreno batean eszenariora ateratzen naizenean hazi egiten naiz. Niri entsaioak gehiago kostatzen zitzaizkidan estrenoa baino. Nik aurrean zein egoten ziren denak ikusten nituen, eta nerbiorik ez nuen batere izaten’.*

Goenkaletik Antxieta taldekoei eskatu zieten kasting bat egitera joateko. Pilarri eszena bat eginarazi zioten Joxe Aranbururekin. *‘Ez dakit zergatik, baina Joxe Aranburuk esan zien hangoei niri gehiena gustatzen zitzaidana haserretutako paperak egitea zela, jenioa agertu beharreko paperak. Hori gezurra da, niri horiek baino gehiago gustatzen zaizkit paper alaiak, edo serioak, baina tira, hala joan zen. Geroztik, Goenkaletik deitzen didatenean beti haserre nagoen paperak ematen dizkirate. Ez dit inportarik, baina...’*

Bere nerbio falta oso lagungarri izan zaio hainbeste kamara eta jende biltzen den lantokian. *‘Kamararen aurrean ibiltzea neretzat ez da problema izan inoiz. Zailena testua ikastea izan da neretzat. Behin ikasiz gero aurrean zein daukadan ez zait batere inporta. Goenkalen denekin egin ditut sekuentziak, Mikelekin, Txapasekin, Leonorrekin, Maria Luisarekin, eta inorekin ez dit eman izan beldurrik’.*

Antzerkiak dituen lan ugarien artean testua buruz ikastea ez da txikienetakoa izango. Harrigarria da nola eskolan gutxi ibilitako hauek, lanean egunero hamar ordu sartzen zituen jende honek testuak ikasten zituen, eta ez hori bakarrik: baita aurrekoak esan behar zuena ere, haien atzetik sartzea tokatzen zitzaientean. Pilarrek aitortzen du urteekin piska bat makaldu egin zaiola oroimena: *‘Orain zailago gertatzen zait ikastea. Goenkaleko Begoñak deitzen didanean galdetzen diodan lehenengo gauza izaten da: ‘Begoña, el texto es corto?’.*

Lehen erraz ikasten nuen, oso erraz gainera, egunero pusketa bat hartu eta hura ondo enpapatzen nuen, eta hurrengo egunean aurrekoarekin batera beste pusketa berri bat, hori izan da nere sistema'.

Antzerkiaz aparte Pilarrek 'Mateo Txistu' film laburrean hartu zuen parte, eta beste bi telesailetan: 'Ertzainak' eta 'Ander eta konpainia'.


Antzerki obra batek daukan prozesu edo ibilbide luze horretan zein den unerik gozoena galdetu diot: 'Jendearen txaloak, dudarik gabe, obra bukatu denean eta zuzendariak ondo irten duela esaten duenean, ze behin ere ez du esaten zuzendariak oso ondo irten duela, baina gustora geratzen dela ikusten dugunean, horixe da momenturik ederrrena, hori eta gero kalera irten eta batek esatea 'oso ederki', eta beste batek 'jo, mundiala', horiek aditzearekin ya esta, konpletatuta geratzen zara, neke guztiekin ahaztu egiten zara'.

Baina bada Pilarrek ahaztu ez duen esaldi bat, berak desplante moduan hartu zuena eta min egin ziona. Hona historia: 'Lakrikun taldean ez dut ezer egin. Antxietarekin amaitu zen nere antzerki lana. Gainera edozein joaten da Lakrikunera! Hango emakume gazte batek esan zidan: 'Pilar, orain zaharrak erretiratu egin behar gazteak hasteko'. Pentsatu nuen: 'Beno, hasi ba, aber nik adina urte egiten ditunan'. Zeharo atzerakoa eman zidan, benetan esaten dut. Ez inporta zaidalako, baino halako zera bat egin zidan esaldi horrek barruan... Zahartutakoak ere ibiltzen dira ba antzerkian. Harrezgeroztik hots egin zidaten ba niri Goenkalera, eta Goenkaletik deitzen zidanak, Begoñak, esaten zuen zailenak bilatzen gu ginela, edadetutako jendea alegia'.





6- TXIKITERORIK OSPETSUENA



Iñaki Bergara. Edo Iñaki Pio. Edo Kaxkurrio. Nahi duzuen bezala. Juanito Bikendirekin batera depresioa zer den ezagutzen ez duten horietakoa. Eta hura bezala, pertsonaje bat, goitik beheraino. Leku askotan ikusiko zenu-ten: Goenkalen, Lakrikumen, mazero San Inaziotako prozesioetan, Ihauterietan kalde- roen gurdian, edo txikiteoan egunero, goiz eta arratsalde. 69 urte dauzka, baina kalan- brea baino biziagoa da.

Txikiteoaz hasi natzaio galdezka, Azpeitian azken koadrila delako berea. *‘Badakizu nik hori zergatik egiten dudan? Nik entzuna dau- kadalako gauzak egin behar direla beti bere orduan eta egunero, luzaroan bizitzeko. Hamabiak eta laurdenetan jaisten naiz etxetik eta ordubata eta laurdenetan etxera sei txikito hartuta. Iluntzean zazpiak laurden gutxitan hasi eta zortziak eta laurdenak arte, beste sei txikito. Hau egunero egiten dugu, astean zazpi egunetan’.*

Ikastolako ume batzuek kenduta inoiz ez diote elkarrizketarik egin Iñaki Piori. Gainera ez zaio gustatzen. *‘Gaur ere hik esan diekalako etorri nauk, bestela ez nitxian etorriko’*, esan dit. Baina argitu du zer- gatik ez duen elkarrizketarik nahi izaten: *‘Nik ez dakit gauzak espre- satzen, ez naiz gauzekin akordatzten, baina hori ba al dakizu zergatik den? Ez diodalako atzeari begiratzen. Niri lehengoa, egindakoa, ez zait inporta. Datorrena inporta zait, egindakoa han dago eta ez nau preokupatzen, ni aurrera begira bizi naiz’.*

Tristealdirik ere ez du ezagutzen: *‘Bueno, juerga egin eta hurrengo goizean normala da triste egotea, baina bestela... depresioa eta ez dut ezagutzen, nik holakorik ez dut izan. Orain bizimodu azkarra dago, denak pastillekin dabiltza, nik ez det holakorik izan. Nik lotarako ez daukat problemarik. Etzan eta lo geratzen naiz, segido’.*

13 urterekin erretzen hasi zen, bi pakete egunean, gaur arte. Igandero mendira joaten da. Eta medikuak harrituta ikusten ditu haren birika garbiak. Oso berezia da gure Kaxkurrio. Eta txiki-txikitik hala omen zen, jende aurrera ateratzen inoiz lotsatu ez den horietakoa. *‘Zirkoa etortzen zenean eta batenbat eskatzen bazuten boluntario nik beti irteten nuen, itxura denez jendearen aurrera irtete hori odolean dakart. Eszenariora igotzeko bokazioa beti eduki izan dut, lotsarik sekula ez, inportarik ez jende aurrean azaltzea’.*

Azken urteotan Goenkaleko pertsonaiak jan egin du Iñaki Pio. *‘Pio gure aita zen, eta gure familia osoa gara Pio, nere anaia Pio Txikiye, ni Iñaki Pio, arreba Mamen Pio, baina orain hori gastatzen ari da, orain Kaxkurrio deitzen didate, bai herrian, baita txikiteoko lagunek ere. Pertsonajeak pertsona jan balu bezala’.*

Kontatu dugu Iñaki Bergara Pasioan hasi zela antzerkia egiten. Horren ondoren urte batzuetan etenaldia ezagutu zuen antzerki amateurak Azpeitian, ezer gutxi egin zen hogeiturtetan, eta gero piztualdi bat ezagutu zuen 1980 urte inguruan. Azpeitiko antzerki amateurren historia garaikidea data horren inguruan hasten dela esan daiteke. 24 urte hauetan egin den lana oso garrantzitsua izan da, herrian bertan eragin handia izan duena, nahiz eta gaur egun hori bizi izan zuten protagonista batzuek etorkizuna nahiko larri ikusten duten. Hitz egingo dugu horretaz aurrerago.

Bigarren piztualdi honetan Iñaki Piori ere hots egin zioten. Omenaldi bat egin nahi zioten Potxolori eta Jaxinto Arregiri, eta lehen egindako obra bat prestatzen hasi ziren: *‘Ustegabeko poza’*. *‘Orduan Imanoli deitu genion, hi, hau eta hau zegok, zuzendu gaitzak mese-dez’*. Prest zegoen, baina kondizioa ipini zuen: *‘Nik hau zuzenduko diat, baina aurrera segitu behar diagu’*.

1981ean estrenatu zuten obra, Santo Tomas egunean, eta handik aurrera Antxieta taldea osatu zen, hamabost urte iraun dituen. Urte horietan hamalau obra estrenatu zituen. Zortzi obra Imanol Eliasek idatzi zituen propio taldearentzat, eta azkeneko seiak, behin taldea banatu zenean, beste autore batzuenak izan ziren.

Hogei urtetan edo antzerkirik egin gabe egonda zergatik hasi zen berriro galdetu diot Iñaki Piori: *‘Ambiente bat zegoelako, han ibiltzen ginen denok. Ni oso gustora ibili naiz antzerki munduan. Hots egindako toki guztietara pozik joan izan naiz. Makina bat lan egin dugu taldean argiak muntatzen, dekorazioak egiten, denetik. Pello Elortza eta ibili genituen laguntzaile garai batean eszenarioak muntatzen, estimatzekoa da. Imanolekin urtero urtero obra berria egiten genuen, hasi septienbrean entsaiatzen eta dizienbrera bitartean jo eta fuego, lan handiak hartzen genituen, baina ni gustora ibiltzen nintzen, entsaioetara ere pozik joaten nintzen, orain ere bai’*.

Izan ere, Antxieta desegin zenean Iñaki Pior ez zuen erretirorik hartu antzerkian. Artean ez al zen aspertu galdetu diot: *‘Aspertu? Ez horixe. Lakrikunetik deitu zidaten, han ere gizonezkoak behar zituztela eta... azkenean baietz esan nien. Lehenengo zalantzan ibili nintzen, laga ere noiz edo noiz egin behar diat pentsatuz, 69 urte eta beti gazte artean ibiltzea ere.... gustora ibiltzen naiz baina. Ba al dakizu zer den gauza polita? Agure zaharra kalean ikusi eta gazteek kaso egitea. Nik Antxietan ibili ziren gazteei eta Lakrikunekoei esaten*

nien, kristoren poza hartzen nuela 'aio Iñaki' entzuten nuenean haien ahotik, ni zaharra naiz, eta neska koskor horiek kaso argi egiten dute, lagun bezala klaro, hori oso gauza polita da'.

1995ean Iñaki Pioren bizitza aldatu egin zen. Gogoan du data: otsailaren 25ean atera zen lehenengo aldiz telebistan, Goenkalen, mozkor-mozkor eginda. Hori zen bere papera. Kaxkurrio deitzen zen, eta Iñaki Perurenak antzezten duen Imanol enpresarioa hil nahi zuen, negozio zikinak eginez Kaxkurrioren familia arruinatu zuelako. Txikiteoan jo zioten adarra ederki biharamunean, esanez: 'Hik Perurena hil behar dekela, lan earra hartu ber dek!'.

Geroztik ia etenik gabe atera da, figurante moduan, batzuetan testu gehiagorekin, bestetan gutxiagorekin, astean bitan edo hirutan. Antzerki amateurrean ohitutako batentzat, bere antzezpen lanak herritik kanpo oso gutxitan egindako batentzat salto handia izan zen. Eta holako gauzak askotan gertatzen diren bezala, ustegabeen izan zen, edo kasualitatez, edo txiripaz. Hala dio Iñakik: '*Kontxu Odriozolak deitu zidan kasting bat egitera joateko esanez, eta nik 'Bai zera, aldeien hortik!'*, eta berak joateko eta joateko. Bueno. Azkenean, behintzat, andrearekin Donostiara joan nintzen, ospitale-*ra laguntzera, eta zain egon behar nuenez, pentsatu nuen, hemen nagoenez joan egin behar dut telebistara, eta halaxe joan nintzen, ospitaletik hurrean dagoelako. Egun hartan Donostiara joan beharrik ez banu izan, igual ez nintzen joan ere egingo. Kontxutaz galde-tu nuen, hots egin zioten eta halako elkarrizketa bat egin zidaten Kontxu tartean zela, kamararen aurrean, eta bueno, bale, esan zuten. Handik berehalaxe deitu zidaten, eta horrelaxe hasi nintzen'.*

Aldaketa handia, benetan. '*Lehengoetan nerbioso egoten nintzen, harek inponitu egiten du, kamarak, fokoak, hainbeste jende bueltan. Lehenago sartzen bazara eszenan 'Moztu, beranduago sartu behar*

duzu!’ esaten dute eta eszena hondatzen duzu. Baina jartzen zara azkenerako. Gainera eszena ahal den azkarrena egin behar izaten da, berritan apuroa da, lotsa piska bat ere bai, baina han zeuden Pello Otaegi, Kontxu ere bai, eta horrek alde egiten du’.

Amateurra ez zen kokildu, halere, profesionalen artean. ‘Jende ona dago, eta berehalaxe integratu nintzen. Esaldi motxak nituen eta. Ni denekin ondo moldatzen naiz, asko lagundu didate, Mikel Garmendiak eta, hasi baino lehen testua errepasatzen laguntzen zidan pasiloan. Hori alde handia da’.

Iñaki Pio telebistarik ez zegoen garai batekoa da, antzerki eskolarik ez zegoen garaikoa. Nork erakutsi zion antzezten? ‘Nik neure kasa ikasi nuen, orain hizketan ari garen bezalaxe, eskua mugitzen duzu, emozioa jarri, pertsonajea sartu, gutxi gora-behera pertsonajea nolakoa den imajinatu... Imanolek asko laguntzen zigun, ‘Hau makalago esan, mugimendu luzeagoak egin, espresioa handitu’ esanez. Antzerkian hitz egitea ez da lagun artean bezala, espresioa handitu egin behar duzu nabarmentzeko, antzokian dauden denek garbi ikusteko, esajeratu egin behar da jendeak urrutitik ikusi dezan. Baina telebistan ez, han dena, keinu guztiak harrapatzen ditu kamarak, beste mundu bat da’.

Gidoia buruz ikasteko ere bere taktikak landu ditu Kaxkurriok. ‘Lehen buru belarri jarduten nuen ikasten, orain aurreko egunean ikasten det, eta astean zehar kasurik ez. Papera hartzen dudanean letu, ideia bat hartu eta bezpera arte begiratu ere ez. Bezperan, gauean ematen diot errepasoa, goizean beste letu pasada bat ona eman, eta grabatzera, eta lehen baino hobeto ateratzen zait. Testu batzuek aldatu egiten ditugu, alderantziz ikasten ditugu, zeren testu asko erderaz pentsatuak daude eta gero euskaratuta, eta horrela ez da ondo irtetzen, eta ikasteko ere askoz zailagoak dira. Testua ikasteko

behar du hitz egiten den bezala egon, ahal den gertuena hitz egitetik, ikasterakoan nik segituan antzematen diot erderaz pentsatuta dagoen ala ez'.

Telebistak fama handia eman dio Iñaki Piori, lanaren garrantziaz ondo konturatu da. *'Kristoneko fama hartzen duzu, ez da giro zenbait tokitan, orain ohituta nago baina. Zenbait tokitara beti joateko beldurrez ibiltzen naiz, ezkutuan bezala, jendeak ezagutu egiten zaitu, aupa Kaxkurrio, benga Kaxkurrio, denak horrela ibiltzen dira, lata handi samarra izaten da. Ni Nafarroan ibiltzen naiz perretxikotan eta han ere mutil koskor denak gainera etortzen zaizkit, neketsua da famaren kontu hori. Hemen, Azpeitin, iluntzetan txikiteoan nabilela ere, emakume zaharrak etxera doazenean Jubilatuetatik, esaten didate, 'Ze Kaxkurrio, gaur ez al dago Goenkalerik? Askok eta askok pentsatzen dute zuzenean egiten dugula, antzerkia bezala'.*

Kaxkurriok ba ote dauka Iñaki Pioren antzik? Edo Iñaki Piok Kaxkurriorenik? *'Piska bat baietz esango nuke. Ez dakit ni ikusi ondoren okurritu zitzaaien pertsonajea, edo aurretik pentsatua zeukaten. Kastingean ez nuen mozkorrarena egin, baina lehen eszenan, Perurenarekin, mozkor totalarekin nengoen, balantzaka. Hurrena, Arantxa Gurmendirekin ere bai, hari dantza eske mozkortuta, eta igual handik tira egingo zioten mozkorraren pertsonajea sortu arte'.*

Beste urte bat egiteko deitu diote Iñaki Bergarari, beste tenporada bat Euskal Herriko telesailik ikusienetakoan. Baina hortik aparte lan ugari egin ditu Iñaki Bergarak, era guztietakoak. Iragarkiak, esate baterako. Bi kuña egin ditu irratian, bata bizkaitarrez, baina lagunek eta laster antzeman omen zioten bera zela.

Laburmetraiak ere egin ditu. *'Topeka'* da horietako bat. Zuzendariak Iñaki Pioren aurpegia behar omen zuen hura egiteko. Deitu zion filmatzeko baina Iñakik antzerkia zeukan egun horretan.

Filmazioa atzeratu eta beste egun batean etxera joan zitzaion bila eta Askixun filmatu zuten. Hainbat sari atera ditu laburmetrai horrek, Galizian, Bilbon, Granadan eta abarretan. Zuzendariak esaten dio sari hauek Iñakiren aurpegiari esker, haren espresioagatik lortu dituztela.

Beste laburmetrai bat ere egin du non pertsonaren eboluzioa jasotzen den, ume denetik zahartzen den arte, aurpegia zimurtzen nola doan. Aurpegi berezia dauka, nonbait, gure Iñakik, hala esaten diote denek.

Iñaki Beraetxerekin ere egin ditu beste bi laburmetrai, azkena Aste Santutan filmatu dute eta oraindik estrenatu gabe dago.

AEK-k 13. Korrika antolatu zuenean egindako ekitaldian ere hartu zuen parte, Kursaaletan. Goenkaleren hamargarren urte ospakizunean ere egin zituen esketx batzuek.

Lan hauek guztiak ikusita, nahiz eta atzera begiratzea ez zaion gustatzen, harrituta agertzen da Iñaki Pio, esanez: *‘Nik pentsatuko al nuen ba hainbeste lan egingo nuenik, telebistan hainbeste urtetan gutxi edo gehiago aterako nintzenik?’*

Ez da gutxiagorako.







7- JENDEARI ONDO PASARAZI NAHI ZION GIZONA



Imanol Elias antzerki-gizon osoa izan da: aktore bezala ibili zen gaztexeagotan, gero idazle, zuzendari, eta egin behar ziren lan klase guztiak egiteko (edo laguntzeko) prest. Sariak ere irabazi ditu. Deustuko Salesianoetan zaletu zen antzerkira, eta bizitza osoan lagundu dion grina izan du geroztik.

Azpeitira itzuli zenean, 16 urteren bueltan, antzerki giro ona aurkitu zuen, Luistarren antzokia zela, Pasioa, Oargi... Halere, gero

20ren bat urteko geldialdia ezagutu zuen. 'Ustegabeko poza' egin zen hainbat aldiz, eta Andoni Albizuri 'Katxok' zuzenduta beste bat, 'Bernaiñoren larriak'. Tartean sortu zuten beste talde bat, 'Grupo artístico azpeitiano' izen ponpoxoarekin, garai hartan denak horrelakoak jartzen ziren eta. Imanolek 'Inuxente' obra idatzi zuen 1964ean, eta 66an estrenatu zuten, zentsuraren baimena lortu ondoren. Soreasun estrenatu zen, honako izenburupean: 'Gran velada benéfica para ayuda de la familia de Antonio Gurruchaga 'Txokolo' (q.e.p.d.)'. Azkoitian ere eman zuten, kartelean hau jartzen zuelarik: 'El Grupo Artístico Azpeitiano pondrá en escena la comedia en tres actos y en vascuence 'INOXENTE' de Imanol Elias que tanto éxito ha obtenido en Azpeitia. En el intermedio actuará el cantante melódico Luis Maria Galdós. Nota: Los muebles utilizados en la representación de la obra son cedidos por Tapicería Elustondo de Azpeitia'.

1981ean, Potxolo eta Jaxinto Arregiri omenaldi moduan, eta berauek parte hartzen zutela, 'Ustegabeko poza' egin zuten berriro,

eta hor hasi zen berpizkundea Azpeitiko antzerki amateurrarentzat. Honela esplikatzan du Imanolek: *‘Gu beti lotura bila joan gara aurreko jendearekin. Nik entzuten nuen: ‘Lehen bai egiten ziren antzerkiak!’. Ikusi egiten zen Azpeitian bazegoela antzerki nahia, afizio handia zegoen. Potxolo eta hauei herri osoak sinpatia zien. Askotan joaten zara antzerkira ‘Aber ze lerdokeria egiten dituzten gaur’ pentsatuta, baina horrekin batera entzuleari euskera ematen diozu, eta bizitasun bat herriari’.*

Filosofia horri jarraituz idatzi izan ditu Imanolek bere antzerki lanak: *‘Gure antzerkia erraz ulertzeko modukoa zen, gozatzeko modukoa, jendea ekarri nahi genuen antzerkira, batek ordu eta erdi gustora pasatzen baditu, hurrengoan ere badaezpada joan egingo da’.* Aipagarriak dira lortu dituen sariak. Bata Alegian, 1986an, *‘Idazlearen heroia’* obragatik, eta bestea Durangon, *‘Urkiola’* obragatik, XVII. Mendean girotutako drama.

Imanol alkate izan zen, eta une hartan sortu ziren Euskal Herriko Antzerki Topaketak. *‘Antzerkian genbiltzan, eta hizketan hasi ginen zergatik ez antolatu aste bat antzerkiari buruz, Maria Jesus Aranburu zegoen kulturean, eta holaxe sortu ziren. Hasi berritan talderen batek ziria sartu zigun, ze jatorriz euskarazkoa izan behar zuen obrak, ez itzulia, eta lehen saria irabazi zuen batek itzulita ekarri zuen. Denak amateurrak ziren, horretarako ziren batipat topaketak, amateurrentzako, giroa sortzeko herri ezberdinetako taldeen artean. Gero profesionalak sartu ziren eta klaro... zuk ikusten duzu egun batean profesionala, hurrengoan amateurra, eta kristoren aldea dago, horrek ez du funtzionatzen, ez dago konparatzerik. Orain antzerki taldeak non daude herrietan? Ia inon ez. Debakoak lehenengo urteetan etortzen ziren, orain ez, orain eurek antolatzen dute Deban aste bat. Zergatik? Hemen ez zirelako ondo hartuak izan,*

nik uste ez dugula lana ondo egin talde amateurrekin, ez dugu jakin lana ondo egiten'.

Kezkatua dago Imanol hain maitea eta berea izan duen antzerki amateurraren egoeraz: *'Garai bat izan da oso ona amateurrentzat, baina nik uste orain profesionalek harrapatu egin dutela alor hori, orain bi edo hiru lagun juntatzen dira eta antzerkia egiten dute edozein tokitan. Lehen profesionalak leku handiak behar zituen bezala... afizionatu batek horien kontra ez dauka ezer egiterik'.*

Imanol 81etik 90era bitartean egon zen Antxieta taldeko zuzendari gisan, eta berak idatzitako zortzi obra estrenatu zituen. Horien artean ezagunenak 'Sendagai traketsa' eta 'Lapurreta urtsua' izan ziren. 'Sendagai traketsa', esate baterako, 22 aldiz eman zuten. Eta dio Imanolek: *'Gero berriz ere azpeitiarkeria pasatu zen, haserretu ginen eta kito'.* 1990. urteko martxoan izan zen zatiketa. Imanolek 'Oñatz' taldea sortu zuen orduan, eta 20 irratsaio eman zituen eza-gutzero Arrate irratian, 'Aupa, aupa!' deiturikoak. Baita ere beste 30 irratsaio eman zituen Arrate eta Loiola irratieta, 'Zirikadak' deiturikoak. Antxieta taldeak bere bidea jarraitu zuen, Oñatz taldearekin inolako zerikusirik gabe.

Haserreak tarteko direnean bi alderdien iritziak entzun behar izaten dira, baina behin haserre gertatu ondoren horrek ez du erremediorik izaten, eta liburu hau ez zaigu iruditu leku egokia denik haserre zaharrak esplikatzen hasteko. Hemen kronika jaso nahi dugu, historia, unerik ederrenen lilura, antzerkiaren indarra, eta ez haserrearen ahuldadea eta alukeria.

Obra serio bat egin zuten Imanolen aroan, Arturo Kanpionen ipuin baten moldaketa: 'Bi ahoko ezpata'. Baina ez zuen funtzionatu, zailtasun handiak zeuzkan obrak kanpora eramateko. *'Umoristikotik seriora pasatzeko orduan jendeak ez zigun gehiegi lagundu. Obra*

ikusen ondoren esaten zuten 'Ederra huan, baina...'. Guri asko gustatu zitzaigun, eta ederki atera zen hemen, Azpeitian. Artista handia Joxe Zabala zen, hark egiten zuen paper bat obra honetan, beno, hark edozein paper egiten zuen ondo'.

Gertaera honek beste kontu bat planteatzen du: antzerki amateurak barre egitekoa behar duen edo ez. *'Nik baietz esango nuke, jendea halaxe ohitu zen Toribio Alzagaren obrekin eta, antzerki hura umorezkoa izaten zen, eta jendea gustorago joaten da denbora alai pasatzera, obra serio bat ikustera baino. Gainera, obra tragikoak profesionalek hobeto egiten dituzte, gaitasun handiagoa dute, hobeto aurkezten dituzte, ze giroa ere sortu behar da antzerkian, eta horretarako gauza asko behar dira, eta egiten ere jakin behar da obra tragiko bat. Errenteriko talde batek ekarri zuen nere obra bat, tragedia bat, 'Urkiola', eta ez zitzaidan gustatu, ez zuten jakin obrak zeukan indarra ematen'.*

Antxieta hamar bat lagunek osatzen zuten, funtsean honako hauek ziren: Juan Bikendi, Abel Eizagirre, Pilar Aizpitarte, Iñaki Bergara, Itziar Oiarzabal, Jose Aranburu, Jose Mari Olaizola, Maritxu Unanue, Alazne Muguruza, Jose Esnaola, Pello Otaegi, Jose Zabala, Mertxe Arregi. Tarteka jende berria etorri eta zeudenetako bakarren batzuk huts egiten zuten. Han ibili ziren, besteak beste: J. Inazio Berasategi, Jose Luis Berasategi, Iñigo Agirre, Nikolas Sorazu, Jaione Beobide, Xabier Arregi, Eurne Ilarramendi... eta falta diren asko. Tamalez ezin denak gogoratu. Barkatuko didate. Obrak idazterakoan Imanolek denak hartzen zituen kontuan. *'Juanito Bikendi aprobetxatu izan dut grazi hori sortzeko. Antzerki bat zegoen harentzako preparatuta, 'Sendagile dantzaria', hark beti zerbait aportatzen zion bere pape-rari, beti zerbait sortzen zuen, eta askotan moztu egin behar izaten nuen, bestela... Testurik ez zuen inbentatzen, horretan zuzena zen.*

Orain, papera ikasten onena Txapa Txikia izaten zen, baina 'j' eta 'g' ez zituen ondo bereizten. Baina ikasten oso azkarra zen'.

Antxietaren estreinaldiak jendetsuak izaten ziren Azpeitian. Ikusleek benetako interesa izaten zuten ea herriko taldeak oraingoan zer prestatu zien ikusteko. *'Jendeak oso ondo hartu gintuen beti. Ni egon nintzen denboran geuretzako bina entrada bakarrik lortzen genituen, dena betetzen zelako. Lehenengotik Soreasun hasi ginen, gero Zelaitxon. Banuen segidore bat estreno guztietara etortzen zena azken urteetan, Xabier Aizarna, diputatua, hura Donostiatik propio etortzen zen urtero-urtero'.*

Pasadizoak ere ugariak dira Imanolen oroimenean. 'Behin Zaldibiara joan ginen, iritsi eta ganbara batean antzeztu behar genuen, ia-ia erori beharrean zegoen ganbara hori, burdinezko puntalak jarri goiari eusteko eta holaxe ibili ginen. Askotan frontoietan egiten genuen, eskoletan. Elduaienen la ostia ziren, ailegatu eta soziedadean beti zeozter ematen ziguten jateko, obra amaitutakoan afaria, eta gero gainera eskatutakoa ordaindu, hara oso gustora joaten ginen. Markinan intxaur baten azpian egin genuen. Kostatu zitzaigun muntatzea, intxaurrari tabladua sokarekin lotu genion. Zaldibian ere hirugarren pisuan geunden eta Txapa Txikia pixa egiten hasi zen leihotik, eta hor ikusten ditugu behean kable lodi-lodiak, 'horrek ematen baldin badik kalanbrea!' esanez denok barrez ibili ginen'.

Irratiarekin izan du harremanik Imanolek, esana dugu. Loiola Irratia sortu zenean, 1961ean, lehen euskal hitzak Imanol Eliasek egin zituen, eta Imanol bera izan zen irrati horretan emititu zen lehen antzerkiaren egilea. Imanolekin batera Karlos Gorostola zumaiarra ere aipatu beharko litzakete.

Estimazio handia izan zuten Antxietaren obra haiek, Imanolenak bezala ondorengoek. Kaito Telebistak dauzka hartuak horietako batzuk, eta tarteka emititzen ditu. Imanoli etortzen omen zaio jendea galdezka, 'Hi, ez al zituen beste obrak hartu?'

Gaurko egoeraz galdetu diot Imanoli: *'Azpeitian talde bat dago martxan, baina irteerarik ez badaukate erraz galtzeko modua ikusten dut. Hainbeste lan hartuz gero, hiru edo lau hilabete obra preparamatzen, eta gero herrian egin eta kito geratzen bada, hori gogorra izaten da, horrek bizitza motza dauka. Herrietan asko galdu da antzerki giroa, ez zaio ematen garrantzirik. Lehen festetan eta antzerki bat ipintzea ohitura zen, orain ez dute jartzen, jendeak ez du eskatzen nonbait, eta dagoen bakarra da tarteka talde profesional batena'.*

Gizartea bera ere zenbat aldatu den urte hauetan! Batetik ikuskizun ugariago, denbora pasako tresna gehiago, aukera gehiago, jendea errazago mugitzen dela batetik bestera. Baina bestetik lana debalde egiteko joeraren galera ere etorri da, Imanolek ederki agertzen dueenez: *'Lehen lana errazago egiten zen debalde, edo Frankoren kontra egiteagatik. Orain, berriz, pagatuta behar du denak, edo laguntzak eskatuta. Bizimodua asko aldatu da. Orain ez dago inor lehen Katxo ibiltzen zen bezala ibiliko denik, Donostiara lagundu guri eta goizeko lauretan etxera, dena debalde, borondate hutsez. Hori gaur galduta dago'.*



8- DEKORATZAILEA AKTORE



Antzerki amateurrrak abantaila horixe dauka: edonor izan daiteke aktore. Antzerkirik demokratikoa da. Borondatea nagusitzen da, eginahala, saiatzea, eta oso aldrebesa ez bazara, eszenariora atera zintezke paper bat egitera. Dena ez delako dirua irabaztea. Beste satisfazioak baditu gizakiak, eta antzerki amateurrrak asko betetzen du egiten dutenen barrua, bihoztza.

Iñigo Agirreren kaso da horietako bat. 1981ean jaso zuen deia, Jose Rezabal 'Potxolo' eta Jaxinto Arregiri egin zioten omenaldirako. Dekoratzaille bat behar zuten eszenatokia txukun-txukun ipintzeko. *'Lehenengo urteetan dekoratzaille bezala ibili nintzen. Soreasun arpillera zahar batzuk zabaldu, lurreko bonbilatxo batzuk jarri, horrela hasi nintzen antzerkiaren gurpilean. 82an Antxieta sortu zen eta ja gurpilean sartuta nengoen, edo erro-tarrian, ez dakit zer den, eta segi egin nuen'.*

Halere, ez zen berehalakoan agertu eszena erdira. *'86an hasi nintzen antzeztzen. Pertsonaje bat falta zuten, eta 'heu zergatik ez?' esan zidaten, nik 'ezta pentsatu ere!', ez nuen nahi, eszenara igotze horrek erreparoa ematen dit, gainera ni beti dekoradore izan nintzen, eta batzuetan hitzemaile edo apuntadore. Baina azkenean egin nuen, eta azken bigarrenengo urtera arte geroztik beti papertxoren bat hartu dut, pisu gehiago edo gutxiago zeukana'.*

Entsaio guztietara joaten zen Iñigo, dekoratzailea izan arren. *'Beti joaten nintzen, astero bi egunetan, eta azken hilabeteen ia egunero.*

Lotura bizia eta handia sortzen da. Norberak daukan zaletasuna, eta gero taldean giro ona edukitzea da klabea, ni gehiena taldeak lotzen ninduen, denon artean egiten genuelako dena, eta giro ona izan genuelako, nahiz eta momentu jakin batzuetan iritzi kontrajarriak egon. Taldeak agintzen du, eta bizipoza ematen du aurrera jarraitzeko. Antxieta desagertzea ere, azken batean, hortik dator, taldea falta, zergatik asko egongo dira hori esplikatzeke baina´.

Iñigok ez du bereizten bere zaletasuna eta talde giroa, nolabait berotasun hori antzerki amateurrean oinarritzkoa balitz bezala. ´Antzerkia nere zaletasuna zen, eta gustatu egiten zitzaidan. Nik ez dut bereiztu nere gogoia taldearen baitatik, ni talde barruan nengoen. Antzerki amateurra Azpeitian zer izan zen, Antxieta sortu zen, eta horrekin batera Imanol alkatetzara sartu zen, Euskal Antzerki Topaketak sortu ziren orduan, eta hor aberastasun handia izan zen, bai pertsonalki neuretzat, eta bai talde bezala, guztiontzat´.

Iñigo bera izan zen zinegotzi epe labur batean, eta bazeukan antzerkiarekin lotutako asmo bat: ´Nere zinegotzi legealdian baneukan apunte bat, eta zen udal antzerki tailer bat antolatzea, baina nola hain denbora gutxi egon nintzen ezin izan nuen gauzatu. Antxietan genbiltzanean ere eduki genuen hor hutsune bat, ez genuen jakin gure zaletasuna herrira gehiago zabaltzen, tailertxo bat antolatu, antzerkirako bidea ireki jendeari, atetxo bat zabaldu, hor hutsunea eduki genuen, eta gaur egun ere uste dut badagoela. Azpeitian, topaketak antolatzeaz aparte beste ahalegin bat egin behar luke udalak. Topaketak oso ondo daude, baina ez dadila mugatu urtearen bukarako hilabete eta erdira. Antzerki amateurra gehiago babestu behar da, mimatu, erakarri Azpeitira. Eta herrian bertan beste zerbait antolatu behar da urtean zehar, aurrekontu ikaragarriarik ez da behar horretarako, tailertxo bat antolatzeke, adibidez, herritar guz-

tiei zabaldu behar zaie antzerkian parte hartzeko aukera, antzerkia ezagutu dezatela barrutik, gero gustatuko ez bazaie ere ezagutu dezala'.

Antzerki amateurra askotan babestu gabe egoten da, entsaioak baldintza txarretan egitera behartua. Antxietan ere ezagutu zuten egoera kaxkarrik. *'Urrestillan gelatxo batean egon ondoren San Agustinpeko lokalera ekarri gintuzten, eta hura benetan frigorifiko bat zen, nahiz eta berogailuak jarri, leku ezegokia erabat, azpiegitararik gabeko lekua. Orain, beste kultur talde asko zoritxarrez lokalik gabe daude gaur, baina badaude kultur arloan talde batzuek lokal egokiekin, azpiegitura ongi prestatutakoarekin, udal laguntzarekin, baita diru aldetik ere, baina beste talde asko, antzerkia barne, ez dago horrela. Zelaixo desagertua dago. Soreasu dago, asmoak dauzkatela diote, baina nik kezka eta zalantza dauzkat'.*

Antxieta taldeak 15 urte iraun zituen guztira. Bigarren aroan Inaxio Tolosa eta Edi Naudo aritu ziren zuzendari lanetan. Balantze bat egiteko eskatu diot Iñigo Agirreri: *'Azpeitirako garrantzitsua izan zen, lehen eduki genuen antzerki amateurra berpizteko gai izan ginen, urteetan desagertuta egon zena. Gu hasi eta berehala atera zen 'Ama begira zazu', hainbeste emanaldirekin, halako arrakastarekin, baina guk ere zirkuitotxo bat egin genuen Gipuzkoa mailan batez ere, herri asko errepikatzen genituen. Bigarren aro horretan ere izan genituen gora-beherak. 'Gertatutakoa agian' obra bi edo hiru aldiz bakarrik eman genuen, baina, adibidez, 92an egin genuen 'Nornorinork' inprobisaketa lana izan zen, geuk idatzi eta nolabait lotu genuena, eta hori izan da Antxietaren historian arrakasta handiena izan duena, gaizki ez banago 40 emanaldi inguru egin genituen. Balorazioa oso positiboa da orohar. Azpeitian antzerki zaletasun bat, maila handiagoan edo txikiagoan, hor mantentzen da gaur*

egun ere. Horri jarraipena eta laguntza ematen ez bazaio behera jaisteko arrisku handia dago´.

Iñigok 1997an utzi zuen antzerkia. Geroztik ez du obrarik egin. Beste zereginak izan ditu haren bizitzak: Ikasberri ikastola, bere lana, familia... Gizon gogoetatsua ematen du, patxadaz eta zehaztasunez hitz egiten duena, baina oraindik ere antzerkiaz hitz egiterakoan antzematen zaio emozio berezi bat, benetako bokazioa, gozamena eta grina eduki zituenaren indarra. *´Antxietan gauza bat geneukan ona, denetzat papertxoren bat lortzen genuen, agertu nahi zuenari aukera ematen zitzaion nola edo hala, baita bi minututan agertu behar bazuen ere. Gero Tolosa eta Edi etorri zirenean, haiek esan zuten: Hemen ez dugu egin behar antzerki obra bat dauden antzezleekin, obra hau da, eta hona moldatu behar dugu. Horiekin hasi ginen ikastaro batzuk ematen, inprobisaketa lanak, argien teknikak ikasten, ikastarotxo laburrak izan arren gure zaletasuna gorpuzten eta aberasten joan zen´.*

Antzerkia ezagutzen ez duenak ez du jakiten baloratzen zer lan egin behar den obra bat prestatzeko. Lan horren aurrean kezkatu dago Iñigo: *´Aurrera begira ez diot etorkizun garbirik ikusten antzerki amateurrari. Bigarren mailako antzerkia da, eta hala izan behar du, baina ez bazaizkio aukerak ematen, bere leku bat, ahuldu egingo da. Zaila da antzerki honi leku bat bilatzea, ze askotan zirkuito jakinetatik kanpora irten eta zer aurkitzen dugu? Ba herri txiki batean, frontoian aktuatzeko aukera. Emanaldiak pilotalekuetan askoz gehiago egiten dira antzokietan baino, eta pilotalekua ez da lekurik egokiena, ez antzezleentzat, ez ikusleentzat´.*

Antxieta desagertu egin zen, eta prentsa ohar bat ateratu zuten, esanez atea ez zutela ixten, han ibili zirenak, hurbildu nahi badute berriro bihar edo etzi, aukera izango dutela. Baina urteak aurrera doaz, eta

ez dirudi berriro Antxieta martxan ikusiko dugunik, gazteen artean halako zaletasun berezi bat pizten ez bada. Badirudi gure gizartean dauden aurrerapen eta asmakizun guztiak antzerkiaren aurka doazela. Gaur, antzerkia, gizartetik nahiko urrunduta ikusten dut; edo gizarteak eman dio bizkarra, neurri handi batean, antzerkiari.

Antxieta zergatik bukatu zen galdetu diot Iñigori: '97an kaleratu genuen *'Hamar minutu gauerdirako'* obra. Horrekin jarraitu genuen 99ko udaberrira arte. Aurrera begirako gogo hori ahuldu egin zen, batetik taldeko batzuek ETBra edo talde profesionaletara joan zirelako, eta beste batzuek adinean aurrera zihoazelako. Jende gutxi geratu ginen, zortzi lagun. Bileretara ere ezin zuen agertu jendeak, nekatu egin ginen, eta jendea falta zen. Batzarra egin genuen, eta gero afari bat urteetan ibili ginen gehientsuenekin agur bat emateko taldeari. Gero, ondare bat geneukan, materiala, jantziak, dirua, eta hori Lakrikun taldeari eman genion denok hala erabakita'.

Tristuratik gertu dauden hitz hauen ondoan beste batzuek, azkenak, eskatu dizkiot Iñigori antzerki topaketei buruz: *'Topaketak jais-ten ari dira. 'Euskal Herriko Antzerki Topaketak' izan handia iru-ditzen zait, Getxon ere antolatzen dira eta hura Azpeitiari lekua jaten joan zaio. Orain, Azpeitik mantendu behar lukeena da, nahiz eta eus-kal idazleek idatzitakoak ez izan, emanaldiak euskeraz izan daiteze-la, zeren hori, Azpeititik kanpo, topaketa batzuetan ez dut uste inon ematen denik'*.

9- ANTZERKIAK HARRAPATUTA ERREME- DIORIK GABE



Idoia Uranga azkoitiarra da, baina antzerkia-
ren bidez integratu da Azpeitian. 32 urte
dauzka. Askok gogoan izango duzue
Goenkalen agertzen zen Beatriz neska ileho-
ria, ba huraxe.

14 urterekin, behin ere antzerki bat ikusi gabe,
bilera xeblebre batera agertu zen.
*'Antxietakoek deialdi bat egin zuten jende
gaztea behar zutela eta, eta gu kuriositatez
azaldu egin ginen, ni eta beste pare bat
lagun. Segituan esan ziguten 'Zuk pertsonaje hau egin behar duzu,
hau ikasi behar duzu buruz'. Ikusi zuten, nonbait, lotsagabe sama-
rrak ginela. Nere lehenengo kontaktoa, bai Azpeitiarekin, bai an-
tzerkiarekin horixe izan zen. Arratsalde txoro bat izan zen, 'ezetz
atrebitu', 'baietz', holaxe joan ginen'.*

Urtero obra bat egiten hasi ziren. *'Topaketetan egiten genuen
estreno mundiala, eta gero kristoren afaria, hori guretzat inzentibo
handia zen'.*

Antxietaren hausketa ere ezagutu zuen Idoiak. Ea Imanol Eliasik
gabe alderik aurkitu zuen galdetu diot: *'Imanolekin antzezten geni-
tuen berak idatzitako obrak, zuzendu ere berak egiten zuen, obra
berak ikusten zuen bezala. Gero, nahi bagenuen beste obraren bat
edo antzeztea geuk ere ez genion lasai komentatzen. Banatu ginene-
an bai, beste obra batzuk hasi ginen egiten eta errazago erabakitzen
genuen zer egin, orain, izpiritu bat galdu egin zen. Lehen Imanol*

zegoen, bere emaztea, Pilar Aizpitarte ere ez zen hain gustura etortzen hasieran, sentitzen zuen Imanoli bizkarra ematen ziola, bi bando bezala geratu ziren. Lehenengo urteak ez ziren oso samurrak izan. Gero ja ondo´.

Imanol Elias elkarriketatu nuenean, hain berea duen dotoretasunarekin, ez zuen sartu nahi izan Antxietaren hausketa horren harira. Baina aipatu zuen obrak aukeratzeko orduan han zegoen askatasuna: *‘Nik esaten nien ekartzeko eurak nahi zituzten obrak, han denon artean aukeratu behar genuela, baina inork ez zuen ezer ekartzen. Lana egin behar da, irakurri, eta esatea errazagoa da gero egitea baino´.*

Bere bizitza profesionalari buruz ere, benetan gustukoa zer dugun edo ez aukeratzeko une horretan, behintzat, begiak zabaldu zizkion Antxietak Idoiari. *‘Nik administratibo ikasten nuen, eta praktikak egiten hasi nintzen tailer batean, eta orduan erabaki nuen hura ez zela neretzako, eta pentsatu nuen aber antzerkitik biziko ote nintzen edo. Artean ‘Antzerti´ zegoen, eta guk egin genuen azken urtea, Maite Agirrerekin. Gero diputazioak aproba bat egin zuen, bi urteko karrera baten modukoa jartzea, titulu homologatu batekin. Hor sartu eta horren bidez hasi nintzen kastingetara joaten´.*

Horrela iritsi zen idoia Uranga Goenkalera. Sei urte egin ditu bertan. Kastingean Mikel Garmendia mozkortuta zegoelarik berak tabernatik kanpo bota behar zuen, eta petral itxurak oso ondo egin omen zituen.

Iñaki Bergarak hain berandu deskubritu zuen fama Idoiak gazterik ezagutu du. *‘Popularitatea kristoren ederra da. Telebistan ateratzen zarenean lehenengo ohitu behar duzu zure aurpegiarekin. Ze antzerkian ez da gertatzen hori, baina telebistan bai, hor zure aurpegia*

ikusi egiten duzu. Gero, kalera atera eta jendeak ezagutzea, denak 'Beatriz, ederki egiten duzu' esanez, hasieran gustatu egiten zitzaizdan. Baina gero ez. Gauza txarrak ere gertatzen ziren. Pertsonajeak zeozer txarra egiten zuenean jendeak uste zuen zuk egin zenuela zeure borondatez. Azkenerrako nazkatu egiten zara. 'Kilometrotara' joan nahi eta pentsatu egiten duzu joan edo ez'.

Gero 'Hasiberriak' telesailean aritu zen aktore zuzendariaren laguntzaile lanetan, eta baita 'Jone eta bere familia' telesailean ere.

Alabaina, Idoia profesionala al da? 'Hori zaila da definitzen, non dago muga profesionala izatea eta ez izatea? Hortik jaten baduzu bazara? Profesional asko dabil hortik jan ezin duena eta beste lan batzuk egiten dituen. Ni Goenkaleko sei urte horietan profesional bezala egon nintzen, baina antzerkian amateurra naiz, eta ez naiz ausartzen neure burua profesional bezala definitzen, hitz hori oso potoloa iruditzen zait. Antzerkitik ezin da bizi. Egin behar duzuna da beste nonbaitetik jan edo Euskal Herritik irten, preparatu antzerki bat euskeraz eta erderaz eta irten. Euskal Herrian ere gero eta talde gutxiago dago antzerkia egiten'.

Antzerkian esperientzia berezi bat bizi izan du Idoiak: Legazpiko zahar talde batek antzerkia egin edo ikasi nahi zuela eta, haiei erakusten hasi zen. Honela deitzen diote taldeari: 'Beti Gazte, grupo de jubilados de teatro'. Hiru urte daramatza Idoiak artista horiekin. Eta ikasurte bukaeran obra bat estrenatzen dute, gazteleraz. Legazpiko edadetu hauei buruz hitz egitean maitasun berezi bat darie Idoiaren hitzei. 'Hasieran baldar samar ibiltzen dira, kosta egiten zaie testua ikastea, baina gero eman behar bigundu egiten dela burua, zenbat eta gehiago jardun gero eta errazago ikasten dute. Kurtso bukaeran beti lore sorta bat erregalatzen didate. Lehenengo urtean harritu

egin nintzen, bigarren goan ere bai, baina hirugarren goan ja zain nengoan, eta efektivamente, 'No te has sorprendido!' esan zidaten, 'Claro, porque ya lo esperaba!'.

Ezusteko handia hartu du Idoiak jubilatuekin, eta berak ere gauza garrantzitsuak ikasi ditu. 'Nik pentsatzen nuen... jubilatuek zer bizitza edukiko dute ba, pasiera joan eta ezer gutxi. Baina oso bizitza aberatsa daukate, koruan dabilta, antzerkian, urtebetetzeetan meriendak egiten dituzte, dantzak... Nik haiekin entsaio eguna jaritzeko prolemak dauzkat, agenda beteta daukatelako. Gauzak beste era batera ikusten dituzte, niri lasaitasuna eman didate. Lehen estreño bat neukanean eman behar egun horretan mundua bukatu egiten zela, zure bizitza horra zuzendua zegoen. Estreno ondoren zer izango zen, edo hurrengo egunean, ezin nuen pentsatu, nerbioak janda ezin nuen bazkaldu... Eta orain bai, lasaiago hartzen dut, badakit zer egin behar dudan egun horretan, eta badakit bizitzak jarraitu egiten duela bihar. Jubilatuekin lasaitu egin naiz, gauzak pausatua egiten dituzte, eta gauza bakoitzari bere garrantzia ematen erakusten dizute. Baloreen eskala bakoitzak geure erara egina daukagu, eta niri jubilatuekin eskala hori hankaz gora joan zait'.

Lasaitasun horrek izan du eraginik, agian, Idoiak bizitza planteatzeko daukan moduan: 'Nik berez Madrilera joan beharko nuke, kurrikulumak eman, agente bat bilatu, baina ez daukat tirri hori, nahiago dut lasai hementxe egon, ni orain nabilen mailan, ez dut sentitzen irten beharrik, bete egiten nau egiten dudanak. Egunen batean gaizki-gaizki banabil, ni egonda nago etxeak garbitzen, umeak zaintzen, eta berriz hasiko naiz'.

Zer da Idoia betetzen duen hori, orain dabilen maila hori? Hitz batean esanda: 'Lakrikun' antzerki taldea. Aurten beteko ditu hamar urte taldeak. Ikasberriko guraso batzuk bildu ziren antzerkia egin

nahian, eta laguntza eskatu zioten Idoiari. Geroztik zuzendaria bera da. Eta Alaitz Olaizolak idazten ditu obrak. Antzerki amateurra izan arren baditu bere exigentziak. *‘Antzerkia jendearentzat egiten duzu eta obra ondo prestatu behar duzu. Behin antzerkian sartzen baldin bazara eta gustatzen bazaizu harrapatu egiten zaitu. Orain, ordu asko eskatzen ditu, entsaioak egitea. Zuk egintzazu lana bederatzi ordu eta gero joan zaitez entsaiatzera beste hiru ordu! Edo asteburuan familiarekin ez dakit nora joan beharrean emanaldia daukazu-la... Jende asko erre egiten da, edo familia erretzen duzu’.*

Lakrikun ondu egin da talde bezala, asentatu, sendotu. Idoiak oraindik gogoan du nola begiratzen zioten hasieran, *‘neska honek zer pentsatzen du’* esanez bezala. *‘Nik ariketak planteatzen nizkien, gela batean sartu eta atera zuen gauza onak eta txarrak, eta ez zidaten ulertzen horrek zertarako balio zuen, esaten zidaten: ‘Zertarako jakin nahi dezu ni haserretzen naizenean nolakoa naizen?’... Baina gero konturatzen ziren zertarako balio zuen. Lehenengo obretan gehiegi adierazten zituzten sentimenduak, gehiegi esajeratu bezala, baina urteen ondoren pertsonaje ezberdinak egiten moldatu egin dira, ikasi egin dute gauzak bere neurrian interpretatzen’.*

Lakrikunek badu beste ezaugarri berezi bat, talde gutxik daukate-na: zuzendaria eta idazlea elkarrekin lanean dauzkate. *‘Daukagun bentaja bat da hori, Alaitz ondoan edukitzea. Pertsonajeak ia pertsonekin pentsatuta sortzen ditu eta hori alde handia da. Hasiberria denari ez diogu lan handirik jarriko, ikasten joan dadin, horrek gauzak asko errazten ditu. Gainera Alaitzek eszena nola imajinatu duen esaten dit eta elkarrekin borobiltzen dugu’.*

Iraupenaren kezka betikoa izaten da lan amateurrei buruz hitz egi-terakoan. Badirudi Lakrikun une onean dagoela orain, nahiz eta emanaldien kopurua asko jaitsi den azken urteotan. *‘Gogoia badago*

jarraitzeko, baina urtean urtean emanaldi gutxiago sortzen dira eta horrek pena ematen dit, pena da lantegi hori hartu eta gero obra ez ematea inon. Zeren emanaldi gutxi badauzkazu, beti hutsetik hasten ari zara, ahaztu egiten da testua, nekagarria da bi hilabetez behin soilik izatea emanaldia, ze aldiro erreparasatu egin behar duzu. Gure artean asko hitz egiten dugu, ea zer ari den pasatzen antzerkiarekin. Guri lehen asko hots egiten ziguten festetarako. Orain ez dakit zer gertatzen ari den, edo beste espektakulu batzuk ekartzen dituzten, edo telebistak kentzen digun lekua...’.

Idoiak gogoan du pasadizo mingarri bat: Adunan zuten emanaldia, hain zuzen ere Rosak Eurobisioan kantatzen zuen larunbatean, eta denak etxean geratu ziren telebista ikusten, lehen herri osoa antzerkيرا etortzen zen bitartean.

Azpeitiko Antzerki Topaketak ikusita ere pena sentitzen du Idoiak. ‘Amateurrak bultzatzeko sortu ziren baina gaur ez dago amateurrik topaketetan, gehienbat profesionalak etortzen dira. Instituzioen aldetik ere ez dute fomentatzen antzerkia, taldeak ez dituzte laguntzen’.

Amaitzeko erreibindikazio bat bota du Idoiak mahai gainera: ‘Gustatuko litzaidake jendeak jakitea Antxietak, hainbeste urtetan zenbat gauza egin zituen, eta gero nola bukatu zuen, zergatik ez zuen laguntzarik eduki. Lakrikun ere Ikasberriko lokaletan dabil, materiala Antxietak emandakoa dauka. Guk eskatzen dugun gauza bakarra da maitatuak izatea, edo sentitzea laguntza bat badugula. Gu urte guztian ibiltzen gara, ez topaketetan bakarrik edo norbaiti omenaldia egin behar zaionean. Lakrikun, halere, urte askotan egongo da, oraindik ere gogoarekin gaude eta.’

Gainera oraintxe sartu dira bi gazte: Iñaki eta Itziar.



10- IDAZLEAREN DELADARRA DESERTUAN



Alaitz Olaizolak 29 urte dauzka, eta meritu izugarria. Ia inork antzerkirik idazten ez duen Euskal Herri honetan, berak antzerkia idazten du. Eta euskaraz. Eta obra horiek argitaratuak dira. Eta antzeztuak. Halere, 'jardiñera' bezala egiten du lan udalarentzat.

Idazle eta antzezle da Alaitz Lakrikun taldean. Agian txikitan antzerki topaketak ikusten zituelako bere herrian. Ez dakigu. *'Ikastolan antzerki tailer bat sortu zen, Irune Zuazolazigorrarekin. Gero Axen Eskalada ibili zen ematen. Hor hasi nintzen antzerkia beste era batera bizitzen. 13 urterekin edo, Maria Jesus Aranburu genuen andereño. Gaztekeraz irakurri behar genuen liburu bat, eta erabaki genuen antzerkia egitea liburu horrekin. Zer gertatzen zen? 14 lagun ginela eta liburuan zortzi pertsonaje bakarrik zeudela. Orduan nere gain hartu nuen adaptazioa egiteko lana, pertsonaje gehiago sortzeko lana. Hura izan zen momentua hasi nintzena sormen lanean'.*

Gazteak ziren, 14 urte, eta antzerkia barruan sentitzen zuten, non-bait. Tailerra sortzea erabaki zuten. Handik atera zen taldetxo bat, 'Hamar gehi bat leotardo' deitu zutena, eta hiru obra prestatu zituzten urteotan. Zein obra? *'Inprobisazioaren bitartez sortzen genituen, clownen sistema hori erabiliz. Ez genituen antzerkiak idazten, baina sortu bai. Orduan Antxietatik deitu zidaten, joateko hura ikustera ea gustatzen zitzaidan, eta pare bat urtez ikastolako taldearekin eta*

*Antxietarekin egon nintzen, batean inprobisatzen eta bestean pape-
ra buruz ikasten´.*

18 urterekin Alaitz haurdun geratu zen, eta haurra izatea erabaki zuelarik puskaketa bat etorri zen antzerkiarekin. Lau bat urletan ez zuen harremanik izan hain maitea zuen antzerkiarekin. Ordurako Lakrikun sortua zen, eta hara inguratu zen Alaitz berriro. Berak dio bigarren jaiotza bat izan zela beretzako. Gaur eguneko obra berriak egin nahi zituzten. *‘Pasa genituen Koldo Mitxelena, Azpeitiko biblio-
teka, liburudendak obra bila, eta ez zegoen ezer ere. Taldean zortzi
lagun egonda zortzi pertsonajeko obra behar genuen. Neuk esan
nien egin nezakeela aproba obra bat idazten, eta beraiek onartu.
Gainera udaletxean izena eman beharra zegoen topaketetan aurkez-
teko, eta eman zuten, momentuz obrarik ez geneukala baina egongo
zela esanda. Orduan derrigortua aurkitu nintzen, eta nik horixe
behar dut idazteko, presio piska bat´.*

Obra idatzi zuen, bere gaztetako sua atera nahian, eta Alaitz berak paper bat egin zuen. Zuzendaria Idoia Uranga zen, eta horrela zuzen-
dariarekin harreman estua izan zuen. Obra hori bere rebalida izan
zen. *‘Ez dira berdinak, antzekoak baizik´* zuen izenburua. Estreñoan
urduri zegoen, pentsatuz: *‘Ni nola iritsi naiz honetara!’*. Zelaitxo
bete egin zen, eta dena ondo joan zen. *‘Nik konfiantza nuen
Idoiarekin, ze oso ondo egiten du lan Idoiak. Ez dakit obra ona zen
edo txarra, baina urte hartan 17 emanaldi izan genituen. Komedia
bat zen. Ni komediazalea naiz, nik herriko jendearentzat egiten dut
antzerkia. Gaur egun gauza moderno asko egiten da, baina ni saia-
tzen naiz eguneratutako komedia egiten, adin guztietako aktoreei
paperak ematen. Obra hori izan zen nere estreñoa. Hortik aurrera
nere gain geratu zen obrak behar zirenean idaztea´.*

Geroztik sei obra idatzi ditu Alaitzek: 'Baserritik baserrira', 'Ez dira berdinak, antzekoak baizik', 'Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin', 'Garalderen requiema', 'Clitemnestra-ren itzulera' eta 'Agorafogobiatuta'. Eta bi sari garrantzitsu irabazi ditu. 'Zereko zera...' obrarekin Euskaltzaindiak konbokatzen duen Toribio Altzaga saria 2001ean, eta 'Clitemnestra-ren itzulera' obrarekin Donostia Hiria saria 2004ean. *'Niri oso etxeko kontuak iruditzen zitzaizkidan obra horiek, baina momentu hura izan zen neure buruarekin konfiantza gehiago izateko aukera, etxetik ateratzeko aukera, ze bestela etxetik barrurako lanak egiten dituzu, kajoian usteltzen direnak askotan. Konfiantza garrantzitsua ematen du holako gauza batek, behintzat egiten ari zarena norbaiti gustatzen zaiola jakitea. Autoestima eman zidan, baina halere ez da nahikoa. Ez dut neure burua asko maite. Bigarren saria etorri zenean ere ezin nuen sines-tu. Zergatik ez, obra aurkeztu banuen? Sekula ez dut neure burua besteen parean ikusten, besteak handiak iruditzen zaizkit nire ondo-an'.*

'Deia' egunkarian Igor Estankonak oso kritika ona egin zion 'Zereko zera...' liburuari. Hona pasarte bat: 'Genero batzuk bereziki egokiak izan ohi dira bizitzaren alderdi konkretu batzuk azaltzeko unean. Euskaltzaindia-BBK saridun honetan, dudarik gabe, genero eta mezuaren arteko ezkontza ideial bat dago. Euskal Herriaren jakintza teatroaren bidez eskaintzea da 'Zereko zera' ren arrakasta nagusia. Horretarako, noski, antzerkia menperatu behar da. Eta menperatu baino gehiago bizi egiten duela frogatu du idazleak'.

Hori da asmatzea, zeren nik galdetu nion Alaitzi ea zer zuen nahia-go, antzezle lana ala idaztea. *'Niretzat aktore izatea funtsezkoa izan*

da obrak sortzeko orduan. Antzerki obra bati berehalaxe antzematen zaio taularatzea posible den edo ez. Antzerkia idazteko orduan eduki behar da kontzientzia ea taulan nola joan behar duen. Eta taularatze hori nolakoa izango den jakin behar duzu, eta hori talde amateurretan oso ondo ikasten da, batez ere dirurik gabe ibili baldin bazara. Baliabide gutxirekin zeozer dotorea lortzea da helburua. Horregatik, orain oso eroso sentitzen naiz antzerkiak idazten, baina aktuatu behar dudanean urduri eta kezkatuta. Hasieran beti esaten diot neure buruari: nork agindu ote dit niri hemen sartzeko. Ordu eta erdi eszenan pasa ondoren, esaten diot: *Eskerrak sartu nintzen*’.

Lakrikunek 2003ko Topaketetan estrenatu zuen bere azken lana, *‘Agorafogobiatuta*’. Bi urtez behin ari dira obrak prestatzen, baina azken honekin ezagutu dute antzerki programazioetan egon den beherakada, orri hauetan aurretik beste batzuek aipatu dutena. *‘Ez dugu emanaldi asko egin geroztik. Obra honekin datorren urteko Topaketak arte iraungo dugu. Lehen urtero obra bat egiten genuen, baina amateur talde batek ezin du martxa hori eraman, emanaldirik ez dago. Nire lehen obrarekin urtean 17 emanaldi izan genituen, orain gaude bi urtetan 9 eginez. Asko jaitsi da. Guk, hala ere, erre que erre segitu egin dugu, antzerkia maite dugulako. Nik uste ordu eta erdi bat modu agraðablean eta umore onarekin pasatzeko aukera badagoela eta jendeak nahi duela hori, baina programatu egin behar da*’.

Agorafogobiatuta obran antzezle hauek hartzen dute parte: Gurutze Eizmendi, Itziar Elias, Alaitz Olaizola, Iñaki Bergara, Martin Alegria, Boni Alegria, Pedro Oiartzabal eta Iñaki Garate. Zuzendari ordea Axen Eskalada da. Eszenografia egin duena Andres

Maiz, eta jostuna Mailo Eizagirre. Taldean ibili diren beste batzuek hauek dira: Jose Ramon Arzuaga, Ana Alkorta, Kontxi Zinkunegi, Juanita Urdanpilleta, Jesus Maiz edota Ima Irazustabarrena argiekin.

Beste herrietan talde amateurrik ba ote dagoen eta, egotea egokiturik, haiekin harremanik ba ote duten galdetu diot Alaitzi. *‘Zehatz-mehatz esateko ez dakit, zeren sortu bezala desagertu egiten dira talde amateurrak. Gutxi gara baina ez daukagu harreman sendorik. Hori beste konpromiso bat da, bilerak egin, beste lan bat, eta gu gehienok gurasoak gara, lana egiten dugu, ez daukagu horretarako denborarik. Talde batzuk badaude, Deban, Mutrikun, baina nik eza-gutu dut urte gutxitan talde asko etortzea Topaketetara, eta orain galdu egin dira gehienak. Asuntoa beltza dago antzerki amateurrrarentzat’.*

Lakrikunen bakoitzak bere lana hartua dauka: batek idatzi egiten du, besteak ekonomia darama, Iñaki Bergarak elektrizista lanak egiten ditu... Obra berria daukatenean, berriz, Antxietakoen antzera, autoetan sartu eta herriz herri joaten dira, udaletxez udaletxe, edo kultur etxeetara euren lana aurkeztera, pertsonalki hitz egin nahi izaten dute arduradunekin, kartelak eman, dosiertxo bat... Hainbeste lanek konpensatzen ote du? *‘Nik hau egiten dut zoriontsu izateko. Jardinetan lana egitera joaten naiz jateko, eta hau egiten dut piska bat zoriontsuago bizitzeko’.*

Izan ere, talde amateurren dinamika ez da dirua irabaztea, baizik eta hurrengo obra prestatzeko dirua ateratzea. Ezberdina da. *‘Udaletxetik jasotzen dugu subentzioa, eta Topaketetan estrenatzeagatik zerbait gehiago kobratzen dugu, baina ezer gutxi. Emanaldiko hainbeste kobratzen dugu eta hori kajara joaten da. Horrekin zeozer*

ordaintzen zaio zuzendariari, niri ere bai testuagatik... Horregatik oso inportanteak dira emanaldiak, horrek dirua pilarazten du hurrengo urtean obra berri bat prestatzeko, gure helburua hori da '.

Antzerki amateurraren aldeko apustua da Lakrikunek egin duena; kultura herrikoi baten aldekoa; kalitatea mantenduz baina gauzak borondatez eta grinaz eginez. Azken batean, medio gutxirekin eta antzezle amateurrekin obra bat muntatzea eta prestatzea mirari handi bat da. Kezka, ordea, ezin baztertu. *'Urte hobeak ezagutu ditu Azpeitiak antzerkiari dagokionez, baina bultzada bat eman behar zaio, jendearen artean zaletasuna badago eta oraindik. Herrian daukaguna zaindu egin behar da, gure kasuan antzerkia, baina baita musika taldeak ere, garrantzia eman behar zaio gauza hauei. Ez dauden egunean faltan botako ditugu '.*

Amaitzeko, Idoiak egin zuen bezala, Alaitzek ere erreibindikazio bat agertu nahi izan du mahai gainera. *'Antzerkia ez da asko ezagutzen den generoa, jendeak ez du barrutik ezagutzen, eta oso erraz esaten du: egidazu antzerki bat hemendik bi asterako, eta gero aste-bete entsaiatu eta egingo dugu. Hori ezin da horrela egin. Lan asko ematen du antzerki batek, han dena elkarrizketen bidez eta irudiz agertu behar duzulako, moldatu egin behar duzu denboraren iragana eta istorio bat egon dadin saiatu. Antzerkigintzaz dakidana auto-didakta moduan dakit, baina konturatzen naiz zer den funtsezkoa eta zer dagoen soberan antzerki obra batean. Jendea ez da zailtasun horren kon-tziente. Antzerkiari ez zaio ematen daukan garrantzia '.*

Horixe da, hain zuzen, liburu honen helburua: antzerkia barrutik ezagutaraztea, dituen zailtasunak agertzea, eskatzen duen sakrifizioa nabarmentzea, herrian izan duen tradizioa nabarmentzea, herriari

ematen dion aberastasuna goraipatzea, eta etorkizunerako dauzkan arazoak eta zailtasunak agertzea.

Bide batez historia piska bat egin nahi izan dugu, eta protagonista batzuk ezagutu, jadanik historia egin dutenak, eta une honetan historia egiten ari direnak.



11- ANTZERKI AMATEURRAREN ABERASTASUNA

Ordu eta erdi inguru irauten du antzerki obra batek. Halako ikuskizun bat berehala pasatzen da gure bizitzaren historia luzean. Horregatik egiten zaigu zaila imajinatzea ere atzean dagoen lana nortarainokoa izan den, zenbat jendek zenbat ordu sartu dituen guri emandaldi hori eskaintzeko. Ezeren truke. Beno ez; gure txaloen truke, gure barrealgaren truke, gure esker onaren truke, gure ordu eta erdiko zoriontasunaren truke. Gure jarrerak, gure presentziak ematen dio zentzua lana debalde egin duen jendearen kontzientziari.

Antzerki amateurrrak badu mirari kutsu bat: zeure auzokideak ikus ditzakezu Gabriel Arestiren obra bat antzezten; goizero tabernan kafea hartzen ondoan daukazuna bat-batean antzerkia egiten ari zaizu; edo dendaria ikusiko duzu itxuraldatuta eszenarioan xelebrekeriak egiten. Horrek indar berezia ematen dio antzerki amateurrrari.

Gaur egun antzerki talde bat edukitzea luxu bat da herri batentzat. Herri horren aberastasuna erakusten duen kultur jarduera bat da. Herri horri buruz asko esaten du antzerki talde batek: eguneroko bizitza arruntarekin konformatzen ez den jendea badagoela, hasteko; hilabete askotako lanean jarraitzeko gogoia eta seriotasuna badagoela; eta azkenik, lan hori ikusteko grina badagoela gainontzeko biztanleen artean, inor joango ez balitz inork ez lukeelako antzerki obra bat prestatuko.

Eta hori guztia ez da gutxi mundu honetan; aldiz, asko da, gauza handia benetan. Hain da handia, non, tamalez eta askotan gertatzen den bezala, desagertu arte ez garela konturatuko zein handia zen. Espero dut egun hori ez iristea berehala.

Gaur egun antzerkiak etsai asko dauzka. Gaur ikuskizun mota asko daukagu, eta denak eskura: telebista kate ugariak, ordenagailuko zerbitzuak eta jokoak, DVDak, zer-ikusi eta nora-joan ugariak, asteburuetako planak... gaur inoiz baino zailagoa da bikote batek esatea: 'Goazen antzerki obra hau ikustera'. Lehenago joango da 'por ahi' afaltzera, kontzertu batera, festa batzuetara, nekazal turismora, eskia-tzera edo Garberara.

Gainera telebistan ikusten ditugun telesail, iragarki eta pelikulek erritmo bizi-bizira ohitu gaituzte, dena azkar gertatzen da eta irudi ikusgarriekin, efektu berezi txundigarriekin liluratzen gaituzte. Irudiaren mundua asko garatu da, eta etengabea da hor dagoen kompetentzia, zeinek efektu arraroagoak lortuko.

Horren ondoan antzerkia ikuskizun lasaia da, eta hori, askorentzat, 'aspergarria' esatea bezala da. Antzerkian dekoratua ez da askorik aldatzen. Pertsonaia batzuek agertzen dira, lasai hitz egiten. Ez dago susto ikaragarriarik, hilketa lazgarriarik, erotismo sutsurik, auto-pertsekuziorik. Istorio bat kontatzen zaigu, pertsonaiak ezagutzen ditugu, haien kezkek, haien ilusioak, haien zalantzak, haien arazoak. Gure begiak dena azkar eta koloretsu ikustera ohitu diren honetan, antzerkiak borroka ikaragarria egin beharra dauka gure dibertsio nahia asetzeko.

Hori da antzerkiaren meritua, hor dago bere lilura. Gure arreta bereganatzen duenean, buru-belarri kontatzen zaigun istorioan sartu garenean, orduan gertatzen da miraria. Nola lortu duten erantzun ezinik geratzen gara, baina barrua beteta sentitzen dugu, telebistarekin inoiz gertatzen ez zaigun bezala.

Eta hau zeure herritar batzuek lortzen dutenean, orduan eta gehiago estimatzen duzu eragin dizuten betetasuna.

Antzerki amateurrak urte hobeak bizi izan ditu; orain txarrak datozkio. Gero eta txarragoak, esango nuke. Horregatik, gero eta sako-nagoa izan behar du gure laguntzak, gure harrerak gero eta beroagoa izan behar du. Zuek denok horretaz ohartzea ere liburu honen helburua da.

Alabaina, antzerkiak bi unetan behar du laguntza, bereziki. Prestatu aurretik, eta prestatu ondoren. Prestatu ondorenekoa ikusle-on gain geratzen da. Estrenatzen dutenean, emanaldia daukatenean joan egin behar da ikustera, eta gustatu bada jo txalo eskuak mintzeraino.

Prestatu aurrekoa beste mundu bat da. Obra idazten duenaren esku dago, edo aukeratzen duenaren esku, aktoreen gain dago, zuzendariaren gain. Eta herriko erakundeek esku ere bai. Antzerki taldeari laguntza ekonomikoak eman behar zaizkio; lokalak utzi, erraztasun guztiekin eta prestakuntza guztiekin. Taldeak dauzkan beharrak betetzen saiatu behar dute erakundeek. Entzun taldeari, taldekoen iritziei. Arazoak konpontzen saiatu, ez arazo gehiago sortzen. Erakundeek asko egin dezakete antzerki amateurren iraupena segurtatzeko, eta egin daitekeen oro egin beharrekoa da, berandu baino lehen. Herrian dauden beste kultur talde guztien artean agian antzerkia delako arris-kurik zorrotzenean bizi dena gaur egun. Beste herri askotan antzerki taldeak desagertu egin direlako mimatu, lagundu eta babestu behar dute bereziki antzerki amateurra Azpeitiko erakundeek, horretarako ahalmena eta konpetentzia daukatenean.

Antzerki amateurrak edertu egiten duelako Azpeitia.

12- MALKO GOZOAK



Jose Luis Otamendi

Iruditzen zait ume-umetatik gurean antzezpenaren itzala bizi izan dugula gertu. Oso txikitatik ikusi uste izan dut horrelako zerbait elizkizunetan, eta eguneroko bizitzako hainbat erritotan. Oholtza eta aldarea edo zenbait familiako jatordu eta zeremonia ez daude elkarrengandik hain urrun askotan.

Egia da eskolako jaiak zirela, etxeko senide arteko jolasak zirela, gabon inguruko famili ospakizunak zirela, karnabalak edo sanjuan suak zirela, izaten genituen aukerak ez ginenak izatera jolas egiteko, ginenak baino ez ginenagoak izatera. Hori, ordea, bai Azpeitian, bai Lizarran eta bai Maulen antzekoa gerta daiteke.

Baina, halako batean, Azpeitian bizi ginen haurrok izan genuen tajuzko antzezpen serioa ezagutzeko aukera ere. Haurtzaro beti mitifikatu horretako lausotan erdi ezkutatua sumatzen dut gogoan Soreasu antzokian Azpeitiko Pasio famatu hura geure begiz ikusteko parada ere izan genuela.

Hortik aurrera, 1980ko hamarkadaz gora batez ere, sarriago izan dira antzezpenak herrian, gehienetan jendearen berotasunik falta izan ez zaienak.

Azpeitia herria da eta bertan sortu den antzerki joera ere herritarra izan da alde askotatik begiratuta. Esan nahi dudana da, Azpeitiko antzerkia herri antzerkia izan dela funtsean, herritarrek egina eta herri-

targo zabal bati eskaintzeko ondua. Eta bistan da joera hori ez dela gurean asmatua, baduela iturri bat, etorkia non finkatua eta tradizio-arekin lotura.

XX. mende hasierako pizkunde garaiko Donostia aldeko antzerki giroak izango du gurean eragina. Orduan ere euskal kutsuko edo herritar kutsuko jai giroan mamitu ohi ziren antzezpenak. Lan denak ez, baina gehienak komedia generoan txerta daitezkeenak dira eta euskararen aldeko jarrera erakusten dutenak batetik, eta bestetik, herri xeheari gustagarri zaiona emateko joeratik ere badutenak. Santo Tomas inguruan eta Euskal Jaien babesean eratu ohi ziren emanaldi gehienak, edozein euskalduni gustagarri gertatzeko modukoak, ez edukietan eta ez hizketa moldeetan, entzuleriari, ikuslegoari buru-nekerik ez sortzeko tankerako piezak.

Gerra ostean ere, edo gerren ostean zuzenago esanda, Altzagak-eta landutako bideari jarraitu ziotenak izan ziren: Maria Dolores Agirre eta Antonio Maria Labaien ditugu orduko antzerki garraren sustatzaille handi bi, Piarres Larzabal ahaztu gabe, noski. Gertuago ere, Anastasio Albizu edo Nemesio Etxaniz bezalako egile garrantzitsuak izan genituen.

Herri antzerkiak ez du oso urruneko ahozko tradizioa ere, eta Urola alde hau eremu oparoa gertatu da pasadizo eta gertaera xelege askotan, altxor hori bizirik du oraindik. Esan dezagun bidenabar, bere tamainako herri euskaldun bati dagokionez, segurutik herri gehienek izan dituztela euren Xebillak, euren Ttamttoak, euren Patxi Piratak eta enparauak. Kontua da horrenbeste euskaldun duten herriak gutxi direla dagoeneko tamalez.

Antzerkia herri baten unean uneko kezka eta grinaren jendarteratzeko tresna ezin zuzenagoa ere bada eta, beharrik, hori baliatu du

herriak behin eta berriz bere poz eta nahigabeak plazaratzeko. Bide ofizialak itxiak eta hesituak diren bitartean, herriak beste adierazpide alternatiboak bilatu ohi ditu: bertsoak, kantua, dantza, antzerkia...

Baina antzerkiak tresna didaktiko eta ideologiko garrantzitsuen izatea ere badu, eta garai bakoitzean herria otzan edukitzeko lo-belar moduan ere erabili du handi jendeak. Balore transmisiorako arma da eta askotan gizarte egituraren ispilu gardena izaten da. Esate baterako, Xabier Muniberen 'El borracho burlado'n erdaraz mintzo da jende ikasia eta euskarazko pasarteak jende xehearen ahotan jarriko dira, maiz burla-haizez gainera. Euskaldun arlotearen irudia oraindik era iraingarrian ageri ohi da antzerki eta telebista saio askotan. 'Ama begira zazu'ren eredia ere, oso bizia eta aberatsa izanagatik, kolonizatu zintzoaren tajura gehiegi hurbiltzen da nire gusturako. Garenaren eta izan nahi dugunaren karikatura motz bat. Horren guztia atzean ideologia atzerakoi eta diariovascozalea dagoela iruditzen zait.

Balore hierarkikoen eta autoritate printzipioaren onurak garbi irakatsi izan ditu elizak ere mendetan horretako aisialdiko ekintza mota guztiak erabiliz eta manipulatur. Baina horiek beste labe bateko opilak ditugu.

Azpeitian guk ezagutu dugun antzerkiak, goian aipatu dugun iturrietatik edanda ere, sotana eta ofizialtasun usainak usain, herritarrek egin dute. Agustín Zubikarainen 'Jaunaren bideetan' edo Pasioak, Euskal Herrian Jesukristoren nekaldia irudikatzeaz gainera Euskal Herriaren pasio partikularra jendaurrean jartzeko ere balioko zuen, euskarak gisako ikuskari bat emateko balio zuela erakusteko ere bai askorentzat, gure kultura duintzeko, bere itoan eta larrian.

Gainera parte hartze handia ahalbidetu zuen, ehun lagunetik gora

ibili baitziren Pasioan lanean, eta euskaraz emana dator. Erredentzioaz mintzo da Pasioa, baina ezin al daiteke erredentzio eta salbatzeko herio hori beste era batera ere ulertu diktadura beltz baten pean bizi den jendearen aldetik? Herri antzerkia herriak har lezakeen adieraz modu zuzen eta libreenetako bat da eta horrexegatik da susmagarri agintearen talaiaetik mundua ikusten duenarentzat.

Gerora, eta gaur egunera arte, bi mugimendu edo oldarraldi nagusi ezagutu dizkiogu antzerkiari Azpeitian. Laurogeiko hamarkadako ernatzearekin Antxieta antzerki taldea sortu zen, berriro geure geurea genuen jardun hori indartzeko asmoz, antzerki amateurra eta euskalduna.

Garai horretan, ordea, baziren lagungarri gertatu ziren egoerak eta giro bat. Azpeitiko kaleetan urte haietan gure historiaren ikuspegi eta ikuskari txundigarriak aletu ziren euskaraz eta erdaraz. Cómicos de la legua-Kilikariak taldearekin Alex Angulo edo Karlos Panera ikusi egiten ditugu oraindik udaletxe aurrean aldambio gainean igota karlistaldietako borrokak berritzen. Eugenio Arozenaren Intxitsu taldeak ere gure iraganaz gogoeta egiteko bidea jarri zigun beste modu batera, Soreasu antzokian. Hura ere bizitzeko aldi interesgarria izan zen, beste asko bezala. Gazte ginela markatu gintuzten lanak izan ziren. Laurogeiko hamarkada hasiera hartan, gezurra badirudi ere, udalak herriko egileen liburuak argitaratzeari ere ekin zion, Pako Aristiren lehen ipuin liburua eta Imanol Eliasen 'Sendagai traketsa' antzezlanarekin horrela kaleratu ziren eta doan banatu azpeitiarren artean. Horretan kulpa handia Ramon Etxezarreta zinegotziak izan zuelakoan nago.

Grina batek eta berak eraginda, eta antzerki-maite eta idazle den Imanol Elias agintzen egokitu zelako zori onari esker, 1983an Antzerki

topaketak sortu ziren hiru helburu hartuta: euskarazko antzerkia eskaintzea, talde amateurrei tokia ematea eta euskarazko antzerki sormena bultzatzea.

Orduko udalak asmo horiekin abiarazi bazituen ere topaketok, laster jarri ziren nagusi beste pasta bateko agintariak eta hala iritsi gara gauden egoera epelera. Ematen du hor aipatutako hiru helburuetatik lehenak bakarrik jarraitzen duela indartsu eta talde amateurren plaza izatearena oso bazterrera utzia dela.

Gero eta bakanago dira euskaraz sortuta taulan ematen diren lan profesionalak eta talde amateurrei laguntzen ez bazaiei bide batez euskaraz sortutako antzerkia ere azpiratzen ari gara.

Gizartetik sortutako ekimenak eta erakundeen babespekoak biak beharrezko direla onartuta ere, Azpeitiko agintariek ia beti zabar jokatzen izan dute kulturarekin, eta antzerki amateurrarekin ere bai. Horrela, teatro amateurrean Azpeitiaren eskaintza ahultzen ari den heinean beste herri batzuk ari dira indarra hartzen (Mutriku, Lekeitio, Pasaia...)

Mirestekoa da geurekin bizi diren herritarrek antzaldatuta ikusi ahal izatea taula gainean edo kalean, gureak eta besteren bizitzak bizitzen. Hori da Antxieta taldeak hainbeste urtetan egin duena. Eta herriak egiteko modu hori maite zuela erakutsi zuen behin eta berriz antzokiak betez, adorea emanez eta taldea indarberrituz kide berrie-kin. Bestelako herri antzerki adierazpenak ere izan dira urteotan, ia beti taldeetan zebilen jendearen lankidetzak falta ez zela. Gogoan ditut NATOn sartzearen kontrako antzerkia edo Pasaiaiko sarraskiaren gerta-reen ingurukoak edo gazteen borrokak islatzen zituzten lanak. Herri antzerkiari herriaren edo sortzaileen kezken eta grinaren ispilu izatea dagokio.

Antxieta urte askotan Azpeitiko antzerki taldea izan da eta 1999az geroztik, besteak beste udalak lokalik gabe utzi zuelako, azkena ekarriko zion agonia luze batean sartu zen. Irri antzerkia lantzeak, herri antzerkia izateak proposamen eszeniko ausartegiak egitea galaraziko zuen maiz, hala ere, eta tartean antzezle gazteagoen eta egile berrien ekarpenari esker odol berritzen jakin izan du gurean antzerki amateurrrak etengabe. Antzerki eskola izan dira taldeok: antzezleentzat, egileentzat, dekoradoreentzat... Eta hori gutxi ez dela, azpeitiarrok egokiera izan dugu Euskal Herriko taldeen arteko sareaz baliatuta Hegoaldeko eta Iparraldeko loturak trinkotzeko. Xirristi-mirristi, Goaz taldea, Daniel Landart, Txomin Heguy, Lukas Dorronsoro... etxeko izan genituen urte mordoskan.

Antxieta taldearen lanari segida emango ziona sortu zen, ordea, 1995ean, eta hura desegin zenean Lakrikun antzerki taldea zentzu askotan bere oinorde ere bilakatu zen. Azpeitiak badu bere antzerki taldea, bizirik gaude. Guk ezagututako bigarren olatu suspergarria beraiei zor diegu.

Bailara hau euskal antzezleen mintegi oparoa da. Batzuk bere garaian Antzertiren eskolatik pasatakoak, eta gehienak antzerki amateurrean eskarmentua bitarteko, autodidaktei muzin egin gabe, txitean-pitean ageri zaizkigu telebistako pantailan, eta inoizka zinean ere bai. Nagore Aranburu, Idoia Uranga, Pedro Otaegi, Kontxu Odriozola, Iñaki Bergara, Luis Iriondo, Pilar Aizpitarte, Jose Kruz Gurrutxaga, Boni Arregi... Hainbeste dira.

Teatroari zor handia dioten Goenkale eta telesailen munduan edo bestelako telebistetako lanetan natural asko topatu ditugu horietako asko. Lanok lan direlako, batzuetan mundutarrago egiten gaituztelako ere bai, eta, batez ere, gure artistei ogibidea eta euren lanean zailtzeko bidea eskaintzen dietelako poztekoa da.

Antzerkia oraindik bizkor dabil gurean. Hilabete gutxi dira herriko emakumeen mahaiak eratutako antzerki tailerrak 'Sateliteatzen' lana antzeztu duela, aurreko urtean 'Greban gaude' eman zuten. Lakrikunek eta Alaitz Olaizolaren itzalak antzerkia bere funtsezko izaerara hurbiltzeko saio ausartaren itxura gero eta garbiagoa du. Eguneroko arazoek taulan isla dute, fantasiak, umoreak eta kritikak gero eta toki handiagoa eskatzen digute antzokian, eliza birmoldatuetan, kalean. Horren lekuko dira, baita ere, ikastetxeetako antzerki tailerrak, Uztarriako kulturaldian antzerkiaren presentzia, tabernetan eta kalean programatzen diren bakarriketak eta emanaldiak.

Antzerkiak eta sormenak oro har berezkoa du deserosoa gertatzea mundu ofizialarentzat. Erakundeek uzkur jokatu ohi dute errentagarritasun politikoa edo mediatikoa emango ez dion kultur jarduerarekin. Alderdi horretatik begiratuta ere ematen du antzerki amateurrek ez duela askorik luzitzen.

Guk miresten jarraituko dugu gure herritarrek, eta berdin beste herrietako taldeek, besteren bizitzetan sartzeko hartua duten trebetasun hori, geu nola eramaten gaituzten geure munduko alderdi ezku-tuak eta bitxiak miaztera, gudan zirrara sortzeko duten gaitasuna, malko gozoak eta gaziak.

Amateur edo maitale horien premia gorria daukagu, badakigu eta errota horretan ere ari dela ehotzen gure kulturaren oraina. Gaur egun euskarazko antzerkiaren euskarri nagusia antzerki amateurra baita.

Azpeitian antzerkiaren fabrika batzuk martxan dira. Azpeitiarrok jende hotzaren fama daukagu baina antzerki taldeek behar duten berotasuna eta aterbea ez al zaio inoiz faltako gurean. Malko gozoen eta malko gazien fabrika etxean edukitzea baino gauza ederragoak ez dira asko izango.

13- AZPEITIKO ESTRENO MUNDIALAK

Bai Antxietak eta bai Lakrikun taldeak ohitura bera izan dute: obrak Azpeitian estrenatzekoa, gero ahal den lekurik gehienetan emanaldiak eskaintzeko. Antxietak 1982an bere lehen obra estrenatu zuenetik 22 urte joan dira. Epe horretan talde bakoitzak estrenatu dituen lanen zerrenda jartzea interesgarria iruditu zaigu.

ANTXIETA TALDEAK KALERATUTAKO LANAK

1982. urtea: SENDAGAI TRAKETSA

1983. “ : JOKOA NAGUSI

1984. “ : LAPURRETA URTSUA

1985. “ : BI AHOKO EZPATA

1986. “ : HAUNDITASUN AMETSAK

1987. “ : HIRU MORROLAK

1989. “ : SENDAGILE DANTZARIA

BAT, BAI, HIRU

1990 . “ : KOMEDI ZAHARRAK

1991. “ : BESTE MUNDUKOAK ETA ZORO BAT

1992. “ : NORINORK, HAU SALTSA

1994. “ : WEST SIDE ISTERIA

1995. “ : GERTATUTAKOA AGIAN

1997. “ : HAMAR MINUTU GAUERDIRAKO

LAKRIKUN TALDEAK KALERATUTAKO OBRAK:

1994. urtea: BIOZBERAK

1995. “ : BERNAINÑOREN LARRIAK

1997. “ : ZORIONEKO OPORRAK

1998. “ : EZ DIRA BERDINAK, ANTZEKOAK BAIZIK


1999. “ : ZERAKO ZERA ZERTZEN DELAKO ZEREKO ZERA-
REKIN

2001. “ : GARALDEREN REQUIEMA

2003. “ : AGORAFIGOBIATUTA

14- LEHENGO ETA ORAINGO ANTZEZLEAK AZPEITIAN

Pilar Aizpitarte	Juan Bikendi	Abel Eizagirre
Iñaki Bergara	Itziar Oiarzabal	Jose Aranburu
Jose Mari Olaizola	Iñaki Rezabal	Luis Mari Galdos
Jacinto Arregi	Jose Esnaola	Iñigo Odriozola
Maritxu Unanue	Alazne Muguruza	Pello Otaegi
Jose Luis Berasategi	J. Inazio Berasategi	Nikolas Sorazu
Jaione Beobide	Leire Betegi	Asier Agiriano
Karlos Ibarbia	Idoia Uranga	Jokin Martinez
Imanol Guridi	Nerea Uranga	Javier Jauregi
Eduarne Illarramendi	Mertxe Arregi	Javier Arregi
Jose Zabala	Boni Alegria	Jesus Maiz
Tomas Bergara	Mailo Eizagirre	Gurutze Eizmendi
Juanita Urdanpilleta	Kontxi Zinkunegi	Ana Alkorta
Jose Ramon Arzuaga	Pedro Oiarzabal	Alaitz Olaizola
Martin Alegria	Iñaki Garate	Itziar Elias
Kontxu Odriozola	Nagore Aranburu	Alberto Berzal
Iñigo Agirre	Jose Rezabal	Boni Arregi




E U S K A L
A N T Z E R K I
T O P A K E T A K

AZPEITIA

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAÏEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
“GARBIÑE”.
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
María Arizmendi / Juanamari Malharia / Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondu ezin ziteken mutilla.



E U S K A L
A N T Z E R K I
T O P A K E T A K

AZPEITIA

- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE, OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA (S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M^a LABAYEN.
Belaunaldiko antzerkilariak.
- 1999 • NEMESIO ETXANIZ.
Teatrozaleen gogoan.
- 2000 • GABRIEL ARESTI SEGUROLA.
Euskal Antzerkian, Biola eta mailuarekin.
- 2001 • MIKEL GARMENDIA
Antzerkia zainetan.
- 2002 • KONTXU ODRIOZOLA
Antzerkia bizitzaren edergarri.
- 2003 • GOENKALE
Ardo ona bezala.
- 2004 • BOKADILLO BATEN TRUKE
Antzerki amateurra Azpeitian